

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide
Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza
Unibertsitate Masterra

LANGILE IKASTOLAK ERABILITAKO METODOLOGIARI BEGIRADA BAT

Natur Zientziak eta Matematika
2018-2019 ikasturtea

Egilea: Aitziber Lizarraga Boneta
Zuzendaria: Jon Altuna Urdin

LABURPENA

Langile Ikastolan eman nituen 14 urte bitarteko eskola urteak 2 urte nituenetik. 80. hamarkadako testuinguruan kokatuz, ikastolen mugimendua oraindik gaztea zen Euskal Herrian eta apaiz eta frankismo garaiko eskola eredu tradizionalekin haustea zuen helburu neurri handi batean. Metodologia konkretu bat garatu zuen ikastolak garaiko eredu pedagogikoak jarraituz baina batez ere, esperimendatuz eta ebaluatuz. Herriko, eta oro har, Euskal Herriko gainerako ikastola ereduak jarraitzen ez zituen ikastola honek bere bide propioa egin zuen urtetan zehar. Guzti hau kontutan harturik eta gaur egun inoiz baino hezkuntza eredu gehiago ikertzen, garatzen eta aplikatzen aritzeak, Langile Ikastolak erabilitako metodologia honen azterketa bat egitera narama. Ikerketa lan honen helburu nagusia, hasiera batean Haur Hezkuntzan eta ondoren Lehen Hezkuntzan aplikaturiko metodologia honek, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan zein jarraipen izan zuen ezagutzea izango da.

Hitz gakoak: Langile Ikastola, metodologia, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

ABSTRACT

I spent 14 years in *Langile Ikastola* since I was 2 years old. Within the juncture of the 80s, the movement of the *ikastolak* was still developing in the Basque Country and one of the main objectives was to break with the traditional model of the school under the clergy and the dictatorship of Franco. Based on the pedagogical models of the period, but mainly on their own experience and evaluation, the school developed a very specific methodology. This school, which did not follow the model established in the other schools of the village or the Basque Country, made its own way through the years. Taking this into account, the fact that currently there is an increasing number of research, development and application of diverse educational models has impelled me to analyse the methodology used in the *Langile Ikastola*. The main aim of this research is to assess the continuity that this methodology, applied initially to Pre-school and Elementary Education, had during the Compulsory Secondary Education.

Key words: Langile Ikastola, methodology, Compulsory Secondary Education.

AURKIBIDEA

1.- SARRERA.....	1
1.1.- Langile Ikastola	1
1.2.- Lanaren planteamendua.....	1
2.- OINARRI TEORIKOAK ETA GAUR EGUNGO EGOERA	2
2.1.- Hezkuntza aldaketak. Bilakaera	2
2.2.- Hezkuntza Euskal Herrian. Ikastolen sorrera.....	3
2.3.- Metodologia desberdinak.....	4
2.4.- Langile Ikastolaren kasua. Bilakaera.....	4
3.- LANGILE IKASTOLA KASUAREN TESTUINGURUA.....	7
4.- HELBURUAK	8
4.1.- Helburu orokorra	8
4.2.- Helburu zehatzak	8
5.- METODOLOGIA.....	9
5.1.- Ikerketaren diseinua	9
5.2.- Lagina	11
5.2.1.- Ikasle ohiak	11
5.2.2.- Irakasleak	11
5.3.- Datuak biltzeko tresnak	11
5.3.1.- Galdetegiak	11
5.3.2.- Talde eztabaida.....	12
6.- DATUAK AZTERTZEKO TRESNAK	12
6.1.- Galdetegiak.....	12
6.2.- Talde eztabaida	13
7.- EMAITZAK	13
7.1.- Ikasle ohiek galdetegietan erantzundakoaren analisia.....	13
7.1.1.- Ikasle ohien datu orokorrak. Perfila	14
7.1.2.- Langile ikastolaren metodologia eta gelen antolaketaren perzepzioa ...	14
7.1.3.- Ikasle ohien motibazioa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan	18
7.1.4.- Langile Ikastolaren ebaluazio modeloa	22

7.2.- Irakasleek galdetegietan erantzundakoaren analisia	26
7.2.1.- Publifikazio prozesua Langile Ikastolan	26
7.2.2.- Heziberri 2020-ren inguruko iritzia	28
7.2.3.- Langile ikastolaren metodologia eta gelen antolaketaren perzepzioa ...	29
7.2.4.- Motibazioa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.....	31
7.2.5.- Langile Ikastolaren ebaluazio modelo	33
8.- ONDORIOAK ETA EZTABAIDA.....	35
8.1.-Publifikatu arren berezko nortasuna duen Ikastola	35
8.2.-Langile Ikastolaren eredia Heziberri 2020 bihurtua	36
8.3.- Talde-lana eta material amankomuna denen artean aurrera egiteko.....	36
8.4.- Lasaitasuna eta poza ikastolara joateko	36
8.5.- Ez da azterketarik eta notarik behar ikas-prozesua eraginkorra izateko....	36
9.- ESKERTZA	37
10.- IKERKETAREN MUGAK	37
11.- BIBLIOGRAFIA.....	37
12.- ERANSKINAK.....	40

1.- SARRERA

Ikastola eta haurtzaro garaia gogoratzean emozio positiboak datozkit gogora. Desberdina zen gure ikastola, Hernaniko Langile Ikastola. Oroitzapen onak gordetzen ditut eta irribarre bat datorkit ezpainetara, pozik joaten ginen egunero ikastolara. 80. hamarkada zen, gizarte konprometitua zen ordukoa, gauzak aldatzeko beharra ikusten zuena eta horretarako oinarriak jarri zituena, urte luzez lanean aritu ondoren.

1.1.- Langile Ikastola

Herriko eta orokorrean Euskal Herriko beste ikastolek ez bezala, metodologia propio bat garatu zuen Ikastolak garaiko eredu pedagogikoak oinarri hartuz eta esperimendatuz, baina batez ere, beste eredu bat posible zela sinistuz. Ezaugarrietako batzuk talde kooperatiboen elkarrekintza, azterketarik eza edo baloreen lanketa izan daitezke ikasketa prozesuari dagokionez. Ikasle-ikasle eta irakasle-ikasle harremanak asko zaintzen ziren, alde humanoa bereziki landuz. Ikasleak gustura eta pozik joaten ziren ikastolara, kezkarik gabe. Alta, ez zen hori bereizgarri bakarra. Gurasoekin zuen lotura estuak, ikastolaren behar anitzak auzolanean aurrera eramatea, kokaturiko herriko auzoekiko zuen erlazioak eta nahiz eta publikoa ez izan, gizarte osoari irekitako ikastola izateak, norberaren ahalmen ekonomikoa edozein zelarik ere, izaera berezia eman zion hasieratik.

Gaur egun garrantzi handia ematen zaio metodologia ez tradizionalari eta gizarteak kontzientzia hartu du honen inguruan, ikasketa prozesua bera zalantzan jarriz zenbait kasutan. Metodologia honek Ikastolan Haur Hezkuntzan eta ondoren Lehen Hezkuntzan egindako bideak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan zein bilakaera izan zuen ezagutzea izango da ikerketa lan honen helburu nagusia.

1.2.- Lanaren planteamendua

Lan hau ikerketa lan bat bezala planteatu da, zehatzago esateko, kasu azterketa bat egitea aurreikusitua da. Euskal Herrian hainbat aldaketa gertatu ziren historiako momentu batean, hezkuntza metodologia berriak sortzeko aukera suertatu zen eta gaur egun ohikoak egiten zaizkigun hezkuntza eredu berri haiek, aitzindariak ere izan zituzten, Langile Ikastolaren kasua adibide gisa jar daitekeelarik. Horrela, metodologia hau urte batzuetan zehar Bigarren Hezkuntzan aplikatu izana hartu da ardatz lan hau aurrera eramateko, beraz, ikerketa enpirikoa da, errealitateko datuak erabili direlako aipaturiko prozesua ezagutzeko. Helburu orokor eta zehatz batzuk planteatu dira, ikerketaren bidea markatu dutenak eta hauek betetzeko metodo mixto bat baliatu da, Likert eskaladun galdetegiak eta eztabaida talde bat erabiliz. Laginari dagokionez, alde batetik Ikastolaren sorreratik edo ia sorreratik eta DBH zikloan ere aritutako Langile Ikastolako irakasleak eta bestetik, Bigarren Hezkuntza Langile Ikastolan egiteko aukera izan zuten ikasleak izango dira parte hartu dutenak, zenbait gairen aurrean interesgarria izan daitekeelako ikuspuntu desberdinak biltzea.

Ikasle ohiei zein irakasleei galdetegiak pasa zaizkie eta, erantzunak aztertu ostean, zenbait gairen inguruan irakasleekin talde eztabaida bat egin da informazio zabalagoa biltzeko.

Azkenik, jasotako datuekin, metodologia beraren aplikazioa, zein honek ikasle eta irakasleengan zuen eraginari buruzko deskribapen bat egingo da, besteak beste.

2.- OINARRI TEORIKOAK ETA GAUR EGUNGO EGOERA

2.1.- Hezkuntza aldaketak. Bilakaera

Hezkuntzak historian zehar askotariko aldaketak izan dituela gauza jakina da, are gehiago, nahi bada, Euskal Herrian. Gaur egun daukagun egoera ulertze aldera, ikuspegi zabala izan behar dugu eta oraingo hezkuntzaren oinarri sendoa izan ziren eta diren ikastolen mugimendura iristeko bide luzea dago atzetik eta honetaz jabetzeko denboran atzera egingo dugu apur bat.

1936. urteko estatu-kolpearen ondorioz, ordura arte Errepublikak ezarri zituen zenbait ezaugarri eta hezkuntzarekin zerikusia zuen oro desagerrarazi zen, pentsamendu ideologiko bat indartzea helburu hartuz (Navarro, 1993). Eskolak erregimenaren baloreetan hezten zituen haurrak eta doktrina katolikoa prozesatzen zuen. Haurrek, eskolan ez ezik, eguneroko bizitzan zuten elizaren presentzia nabaria zen, gizartean erabateko garrantzia izatera heldu baitzen (Ramirez, 2014).

Guzti horrek isla zuzena zuen hezkuntzaren inguruan sorturiko legeetan. 1939tik 1982ra arte bi hezkuntza lege nagusi egon ziren, 1945ean "Lehenengo Hezkuntzari buruzko Legea" eta 1970eko "Hezkuntza Orokorreko Legea". Bi lege horien artean erreforma txiki bat egon bazen ere, horrek ez zituen «nazional-katolizismoaren» oinarriak aldatu. Egoera hartan, eskoletan irakasten zuten irakasleak frankismoko agintarien esanetara zeuden, frankismoaren militanteak ziren. Estatu-kolpeak ekarritako aldaketek irakasleen arazketa bat bultzatu zuen eta honek, Euskal Herritik kanpoko irakasle asko ekarri zituen, besteak beste, hizkuntzaren arazoa plazaratuz. Hizkuntza jazarpena ekarri zuen erregimenak eta ondorioz euskal gizartearen haserrea. Irakasle askok ez zekiten euskaraz (Gipuzkoako datuen arabera, 448 irakasleetatik 345 kanpotik etorriak ziren eta Euskal Herrian jaiotakoak 123 baino ez, 1975ko datuen arabera), ezta ikasle askok gazteleraz ere, eta horrek ere eztabaida, haserrea eta liskarrak sortu zituen (Murua, 2009).

Aipaturiko lege aldaketa hauek jarraipena izan zuten urteetan zehar, 1970. urtetik gaur egunera arte 7 lege berri egon baitira; Alderdi politikoek euren ideiekin bat datozen irizpide erlijioso, moral, linguistiko,... -en araberako legeak sortu dituzte, urte gutxitan hezkuntzaren inguruan sortutako zurrunbiloa handituz. Interes

partidistak hezkuntzaren helburu orokorren gaitetik jarri dituzte gizartean nahasmena eta haserrea sortuz, proba desberdinetan emaitza kezkarriak erdiesteak ekarri duena hein handi batean (López Serrano, 2019). Alabaina, hauen azterketa eta konparazio bat eginez gero, oinarrian denak antzekoak direla ikusten da, are gehiago, 1857. urteko Instrukzio Publikoaren Legea edo *Moyano Lege* bezala ezagunagoa denak eta 2013. urtean publiko egin zen LOMCE legeak antzekotasun handiak dituzte (Martinez Mesa, 2013).

2.2.- Hezkuntza Euskal Herrian. Ikastolen sorrera

Aipatzekoa da Euskal Herrian hezkuntzak bere bide propioa egin duela neurri handi batean, ikastolen mugimenduaren bidez batez ere. Honek XIX. mendearen amaieran eman zituen lehen pausoak, eta pixkanaka hedatuz joan zen mugimendua gorpuzten joan zen. Gobernu eredu desberdinak zirela eta, bilakaera horrek zailtasun gehiago edo gutxiago izan zituen, Primo de Riveraren diktadurak edo Errepublika garaia aukera erabat kontrajarriak eskaintzen baitzituen (Iza, 2010).

1936tik aurrera, 40 urteko diktadura hasi zen eta bitarte horretan 3 garai desberdin bereiz daitezke ikastolen mugimenduan 1943 eta 1960 urteen artean klandestinitatean egon ziren, aipatzekoak direlarik Donostiako alde zaharrean Elvira Zipitriak (Aranburu, 1991) etxe-eskolak deituriko pisuetan hasitako bidea, besteak beste, Karmele Esnalekin (Azkarate, 2012) batera edo Maria Dolores Goyak Grosen hasitako ibilbidea (Aranburu, 1991). Ez ziren hauek kasu bakarrak izan, Bilbon ere pauso berriak ematen hasi baitziren Xabier Peña, María Angeles Garay edo Julia Berrojalbiz, esaterako. 1960 eta 1976 urte bitartean ikastola sarea handitu eta legalizatu egin zen, azkenik, normalizazio prozesu batean sartu zelarik ondorengo urteetan (Basurto, 1989).

Lehenengo ikastola klandestino haiekin hasi zen gaur egun ikastola bezala ulertzen dugun fenomeno. Gizartean behar batzuk sortuak ziren momentu hartarako eta aldaketa baten eskaera argia ikusten zen. Mugimendu hau oso garrantzitsua izan da Euskal Herrian, bai hezkuntza eredu gisa baita euskara bultzatzeko tresna bezala ere. Bi horiek dira, hain zuzen ere, ikastolak sortzeko arrazoi nagusiak. Garaiko testuingurua aztertuz gero, 60. hamarkadan frankismoa zen nagusi eta gurasoek ez zuten beraiek izandako eskola-esperientzia euren seme-alabek pairatzerik nahi. Euskararen zapalkuntzaren aurrean euskara bultzatzea oinarri izango zuen eskola sortu nahi zen, eskola modelo berri bat erabiliz, ordura arte 2 eskola eredu baitzeuden: estatuaren eskola publikoa eta ikastetxe erlijiosoak. Zenbait faktore izan behar dira kontutan, izan ere, gaur egun kultur jarduera bezala kontsideratzen ditugun ekintzak, jendearen topagune gisa hartzen ziren orduan: mendi taldeak, dantza taldeak edo musika taldeak, esaterako. Gizartearen zati handi baten nahia

zen, kontzientziario handia zegoen eta hori guztia ikastolen mugimendua bultzatzeko motorra izan zen. Aipatzekoa da industrializazioa Euskal Herrira iritsia zela garai hartarako eta egoera ekonomikoa ona zela, zenbait herri ekimen finantzatzen hasiak ziren eta baita ikastolak ere, diru laguntza herrikoia ezinbestekoa izan baitzen ikastolen proiektua sortu eta mantentzeko. Aitzindarietako batzuen eredu jarraituz eta beraiekin izandako elkarrekintzatik etorri ziren gainerakoak, bai Hego Euskal Herrian eta baita Ipar Euskal Herrian ere, 1969. urtean sortu baitzen Seaska elkartea (Iza, 2010).

2.3.- Metodologia desberdinak

Gizartea etengabe aldatzen ari da baina badirudi hezkuntzak ez duela aldaketa horien aurrean erantzun bat ematen. Sortutako behar berriei ez zaie trataera egokia ematen eta honek zenbait arazo ekarri ditu, porrot eskolarra edo ikasketak uztea besteak beste. Estatu mailan egindako ikerketen arabera, ikasleak Lehen Hezkuntzan hasten dira ikasturtea errepikatzen, 10etik ikasle 1 ez doa adinez dagokion ikasturtean. Bigarren Hezkuntzan porrot eskolarra %28,4an kokatzen da, hau da, ikasleen herenak ikasketak uzten ditu (Fernandez Enguita, Mena, & Riviere, 2010). Hezkuntza atzeratua geratu dela esan daiteke, ez du gizarteak adina eboluzio jasan eta horren adibide izan daitezke azken hamarkadetan gero eta ohikoagoak diren metodologia anitzak (Montessori, Baso eskolak, Waldorf, etab.) eskaintzen dituzten eskolen ugalketa (Corcuera, 2012).

2.4.- Langile Ikastolaren kasua. Bilakaera

Ildo horretatik jarraituz eta agian metodologia berrien erabilera sustatzen aitzindarietako bat izan zen ikastola sortu zen 1970-1971 ikasturtean Hernanin: Langile Ikastola. 1976. urtean legeztatu zen kooperatiba gisa eta orduan hartu zuen Langile izena. Gainerako ikastolen asmoen haritik abiatu zen Langile ere, ordura arteko ereduarekin hautsi eta eskola desberdin bat eraikitzea zen helburua, ondorengo ezaugarriak izango zituen: herri eskola izaera, euskalduna eta inklusiboa, elitismoak baztertzea, sektore guztiei irekita egotea eta auzoetan ere kokatua egotea. Ikastolak zentro handirik ez zuenez, herrian erabilera anitzak izandako lokalak erabiltzen zituen. 1981-82 ikasturtean EEPA kolektiboan integratu eta Eskola Publiko Bakar baten aldeko ahalegina bultzatu zuen Ikastolak. 1982an Hernanin ospatu zen "Kilometroak" festa eta horri esker proiektuarekin aurrera jarraitzeko modua izan zuen. Orain azaldutako hau garaiko zailtasunen adibide bat besterik ez da (Garmendia, 2014).

Metodologia aldetik, Estatu mailako beste eskola batzuek bezala, Freinet-en ereduak jarraitzeko apustua egin zuen Ikastolak (Pericacho & Hontañón, 2015) eta ildo bera jarraitzen zuten gainerako eskolekin batera Herri Eskolaren Aldeko Mugimendu Kooperatiboa edo agian gaztelaniaz ezagunagoa den *Movimiento Cooperativo de*

Escuela Popular (MCEP) izeneko taldearen parte izan zen (Errico, 2014). Berrikuntza pedagogikoa zen guztien helburua eta honen bidez, hezkuntzan aldaketa bat ematea. Guzti hau aplikagarria zen Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta baita Bigarren Hezkuntzan ere (Pericacho & Hontañón, 2015).

Urte haietan Ikastolak ez zuen metodologia jakin bat jarraitzen, Elvira Zipitriaren lana, unean uneko pedagogi ikerketak aztertu eta interesgarriak iruditzen zitzaizkien egile eta metodologia jakin batzuk aplikatzen zituzten, irakasle guztien adostasuna nagusi zelarik. Horietako pedagogo batzuk dira Freire (Freire, 1975) eta Köhlberg (Köhlberg, 1982) baina batez ere Freinet (Errico, 2014); (Freinet, 1993).

Ikastolaren pedagogia planak zera zioen 2010-2011ko memorian: "Eskola etengabeko ikerketa leku izango da, Hezkuntza Proiektua aberastuko duten zenbait pedagogia berrikuntza bildu eta bereganatzeko guztiz irekia agertuko da. Hormen itxitasuna baztertu eta kalera irtengo gara gure esperientzia aberastu eta osatze bidean" (Langile Ikastola, 2010, or. 13).

Ikastola ez da inolaz ere gizartetik at dagoen erakunde bat, eta testuinguru honetan, herrian bertan eta gizartean ematen ziren aldaketekin berau ere moldatzen eta eraldatzen joan zen. Hala, 90. hamarkadan, publikazio prozesuan sartu zen eta 1993an Langile Ikastola eskola publiko bihurtu zen eskola komunitate osoak hala erabakita (Garmendia, 2014). Haserako helburu haiek berdinak izaten jarraitzen zuten, baina prozesu honetan, Ikastolak, bestelako zailtasun batzuei aurre egiteko zenbait erronka izan zituela aurreikus daiteke, hala nola, Hezkuntza Saitetik zetozen betebeharrak eta ezaugarri batzuekin bat egin beharra edo Ikastolak aukeratzen ez zituen irakasle berrien integrazio prozesua aurrera eramatea. Gertaera hauek ikastolaren etorkizuna erabat baldintzatu zutela pentsa daiteke, izan ere, irakasleriaren inplikazioa erabatekoa zen ordura arte eta irakasle berriek proiektuan sinetsi behar zuten eta honekin inplikatzeko prest egon behar zuten.

1996an Ikastolaren proiektua 16 urtera arte luzatu zen DBHaren ezarpenaren ondorioz (Dávila, 2005). Luzapen honek 14 urteko ibilbidea izan zuen, izan ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren aginduz, Hernanin zeuden DBHko ikastetxe guztiak fusionatu egin ziren, Hernaniko Institutuak hartu zuelarik ikasle hauen hezkuntza beregain. Beraz, 12 urtera arteko hezkuntza ematera mugatu behar izan zuen Ikastolak 2010. urtetik aurrera (Garmendia, 2014). Ikastolak ahaleginak egin zituen zikloarekin jarraitu ahal izateko (Auzmendi, 2010) eta horren erakusgarri da orduko Hezkuntza Sailburua zen Isabel Celaá-ri bideratutako gutuna (eranskina 1).

Ikastolaren metodologia edo eguneroko lan-martxa nolakoa den jakiteko zenbait informazio biltzen da jarraian.

Ikastolako lan espazioak aztertuz gero, gelak ez dira ikustera ohituta gauden ikasgelak, banakako mahaiekin eta ikasle bakoitza bere motxila, liburu eta materialarekin. Langilen ez dira asignaturak oinarritzat hartzen, tailerrak erabiltzen dira ikaskuntza prozesua garatzeko. Hauen bidez, etengabeko ikerketa suposatzen duten jarduera ekintzailea eta sorkuntzakoa bermatuak daudelako ustea du Ikastolak (Langile Ikastola, 1998).

Ikasleak talde txikitan esertzen dira, normalean lau ikaslez osatutakoak, ikasle eta irakasleen parte-hartzea bultzatuz. *Lantrato* izeneko txostenen bidez egiten da lan, hau da, irakasleak modu irekian lana aurkezten du eta ikasleek epe konkretu batean (aste bat edo bi) entregatzeko konpromezua adierazten dute euren buruarekiko eta taldearekiko, norberaren autonomia landuz. Beraz, ikaslearen ardura da lantratoa bukatu ahal izateko antolaketa egoki bat egitea, horretarako ikastolan bideratutako eskola orduak baliatzen dituelarik, etxera lanik eraman beharrik gabe, antolaketa hori era egokian egiten bada. Berdinen arteko ikasketa bultzatzen da, taldeka eseriz eta testu libururik erabili gabe, irakasleak bideratzen du ikaskuntza prozesu hori. Txosten hauetan egin beharreko aktibitateak daude: bakarka egin beharrekoak, talde txikian eta talde handian. Lanerako beharrezko material guztia tailerrean egoten denez, ikasleak dira tailerrez tailer mugitzen direnak. Tailer hauek batzuetan proiektuen inguruan antolatzen dira, beraz, gerta daiteke tailer desberdinak gai berdina lantzen aritzea. Ikastolan tailerrari eskaintzen zaizkion orduak bi zatitan banaturik daude, *tailer bilera* eta *tailer librea* deiturikoak. *Tailer bilera* ikasgaiari eskainitako denbora izango litzateke (ordu eta erdi, bi ordu): hor sartzen da lantratoaren gaia azaltzea, jarduerak egitea, azalpenak ematea, etab. *tailer librea* berriz, norberak bere lana antolatzeko denbora da. Ikasleak bere autonomia eta antolatzeko gaitasuna landuko ditu eta egin beharreko lanak bere erritmoan garatuko ditu. Kasu honetan ez dute gelako talde txikitan egon beharrik eta beraz, beste ikasle batzuekin lan egiteko aukera dute. Saio hauetan irakasle gehienak presente daude eta ikasleek dauzkaten lanak aurrera eramateko zein izan ditzaketen zalantzak argitzeko erabiltzen dituzte (Langile Ikastola, 1998).

Lehen Hezkuntzan egiten den gisan, Bigarren Hezkuntzan ere arratsalde batzuetan arratsaldeko tailerrak daude. Hau da, aukerako gaiak eskaintzen zaizkie ikasleei eta hauek gurasoen esku geratzen dira. 1998. Ikasturtean adibidez, egur taila, sukaldea, joskintza edo gantxiloa bezalako tailerrak eskaintzeko aukera izan zen (Langile Ikastola, 1998).

Langilen ebaluaketek beste zentzu eta planteamendu bat dute. Ebaluaketa ikasketa bat bezala ulertzen da: zer egin dugun, zer dakigun eta zertan hobetu behar dugun adierazten duen prozesua. Ikaslea da protagonista eta bere autoebaluaketak (2. eranskina) esango dio zertan aurreratu duen eta zer duen egiteko, beti ere autoestima zainduz eta lehiakortasunik gabeko ebaluaketa izanik. Irakasleak ere ebaluatuko du ikaslearen lana, baita jarrera eta egoera ere, ikasleari eta familikoei helaraziko zaiena. Baina ez hori bakarrik, irakaslearen lana ere ebaluatuko da: ikasleekin eta gainontzeko irakasleekin, irakasle taldean eta tailerretan (Langile Ikastola, 1998).

Gaur egun hezkuntzan dauden arazoak ikusirik (lehen aipatu dira horietako batzuk) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak plazaratutako Heziberri 2020k (Eusko Jaurlaritza, 2015) buelta bat eman nahi dio guzti honi eta zenbait planteamendu egiten ditu gaur egungo gizartera egokitzen direnak neurri batean: gaitasunak, kompetentziak, emozioak edo edukien garrantzi erlatiboa azpimarratzen ditu. Baina benetan berria al da guzti hau? Lege aldaketak direla eta aplikazio zuzen bat izan ote dezaken guzti honek ikastetxeen eguneroko funtzionamenduan planteatu beharreko zerbait izango litzateke edo hobe esan, nola txertatu daiteken guzti hau martxan dagoen sistema batean.

Lan honetan, Langile Ikastolak erabilitako metodologiak Bigarren Hezkuntzan izandako bilakaera biltzen da, nahiz eta gaur egun Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Ikastola soilik izan.

3.- LANGILE IKASTOLA KASUAREN TESTUINGURUA

Langile Ikastola 20.000 biztanle inguru dituen Hernani herrian kokaturik dago, Donostialdean (Gipuzkoa). Hernaniarren %93,26k (2015-2016 ikasturteko datuen arabera) herrian ikasteko aukera egiten du, nahiz eta Donostia oso gertu egon eta bertako irakaskuntza eskaintza zabala izan. Langile Ikastolak herri osoko ikasleak jasotzen ditu, bai erdialdekoak zein auzoetakoak. Beraz, esan daiteke familien aukeraketan pisu handiagoa duela ikastolaren proiektuak kokalekuak berak baino. Ikastola, Hernaniko maila sozioekonomikoaren isla da; batz bestea maila ertain eta altuko ikasleak jasotzen ditu (Langile Ikastola, 2018).

Bere ibilbidean eraikin eta baliabide desberdinak erabili izan ditu eta gaur egungo antolaketa ondoren adierazten den moduan egina dago.

Ikasleak 3 zentrotan banaturik daude adin eta ikasketa mailaren arabera:

- Meabe: Haur Hezkuntzako 2, 3 eta 4 urteko ikasleak hartzen dituena.
- Bidebieta: Haur Hezkuntzako 5 urteko ikasleak daude bertan.
- Laubidieta: Lehen Hezkuntzako ikasleak daude bertan.

3 lerro ditu maila gehienetan eta irakasleen banaketa ondorengoa da (espezialistak kontutan hartu gabe) 13 irakasle Haur Hezkuntzan eta 18 irakasle Lehen Hezkuntzan (2018-2019 ikasturtean). Langile Ikastolak jangela zerbitzua eskaintzen du bere hiru ikastetxeetan, janari hornitzailea Ausolan enpresa delarik (Langile Ikastola, 2018).

Ikastolak web orri bat dauka eta bertan kontsulta daiteke ikastolaren inguruko informazioa, bai gaur egungoa baita bilakaera labur bat ere. Ikastola eta hezkuntzaren inguruko hainbat dokumentu daude eskuragarri eta baita albisteei dagokien txoko bat ere. Ikasleei begira, urteko irteerak kontsulta daitezke: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako maila guztiek dute irteeraren bat eta honen inguruko informazioa ezagutu daiteke. Honez gain, telebista eta irratia ere baditu, ikasleek egindako lanak kontsultatu ahal izateko, "ikasleen txokoa" deiturikoaz gain, non ikasleek egindako testu idatziak eta marrazkiak jasotzen diren.

Agenda, jangelako menua eta egunean eguneko ikasleen urtebetetzeak ere presente daude aipaturiko internet atarian (Langile Ikastola, d.g.).

4.- HELBURUAK

4.1.- Helburu orokorra

Langile Ikastolak jadanik Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan aplikatzen zuen metodologiak Bigarren Hezkuntzan izan zuen bilakaera ezagutzea izango da helburu nagusia.

4.2.- Helburu zehatzak

Hau egiteko, alabaina, zenbait helburu zehatz planteatuko dira eta ikerketa aurrera eramateko ezarritako diseinuaren arabera, horiei erantzuna emateko saiakera egingo da.

Langile Ikastolaren bilakaeran azaldu dira aztergai izan daitezken zenbait esparru. Hezkuntza gai zabala izanik, asko izan daitezke aztertu daitezken atalak, baina lanak muga batzuk izan behar dituela eta, esanguratsuak izan daitezkeenak aukeratu dira, ondorengo arrazoiak jarraituz.

Alde batetik, Ikastolak administrazioarekin duen erlazioa aldatu egin da urte hauetan zehar. Haserako baldintzak zirela eta Ikastolaren sorreran ezaugarri batzuk izan zituen baina aipatu bezala publiko izatera pasa zen 90. hamarkadan. Honen ondorioak jasotze aldera, irakasleen ikuspuntutik prozesua nolakoa izan zen jakitea interesgarria suerta daitekeela pentsatu da.

Hezkuntza legeen artean, EAEn martxan dagoen Heziberri 2020 Hezkuntza Eredu Pedagogikoak hainbat aldaketa planteatzen ditu hezkuntza tradizionalaren aurrean,

metodologiaren aldea bereziki nabarmenduz: arazo egoerak edo kompetentzietan oinarrituriko ebaluazioa dira besteak beste barne-hartzen dituen puntu nagusietako batzuk. Langilek aplikaturiko metodologiak plan honekin antzekotasunik izan dezaken ezagutu nahi izan da.

Ikastolak bide propioa egitearen bereizgarrietako bat da erabilitako metodologia eta zentzu horretan atal honi ere bere tokia eskaintzea ezinbestekoa dela uste da, ebaluazioa bera eta ikasleengan guzti honek zuen eragina bezala.

Helburu zehatz horiek beraz, honakoak izango lirateke:

1. Irakasleen ikuspuntutik Ikastolaren publikazio prozesua nolakoa izan zen eta ekarritako aldaketak ezagutzea.
2. Heziberri 2020-rekin izan ditzaken antzekotasun eta ezberdintasunak aztertzea.
3. Langile Ikastolaren gela antolaketa/metodologia aztertzea ikasle ohi zein irakasleen ikuspuntutik.
4. Ikasle eta irakasleen motibazioaren lanketaren perzeptzioa.
5. Langile Ikastolak erabilitako ebaluazio sistemaren berri izatea ikasle ohi eta irakasleen eskutik.


Puntu hauen inguruko informazioa eskuratuz eta aztertuz, Langile Ikastolaren funtzionamenduaren ideia orokor bat izan daiteke eta era horretan metodologia horren inguruko ezagutza lor daiteke.

5.- METODOLOGIA

5.1.- Ikerketaren diseinua

Honelako lan bat planteatzerakoan, gaiaren aukeraketak ezinbesteko garrantzia du lana nondik nora joango den erabakitzeke momentuan. Gaia definiturik dagoenean, helburuak planteatu eta hurrengo pausoa prozesua nolakoa izango den erabakitzea izango da. Ikerketa lan baten aurrean, erabiliko den metodologia definitzea izango da egin beharreko oinarritzko gauzetako bat.

Bide eta teknika desberdinak daudenez gero, aukeraketa bat egin behar da eta sailkapen bat egite aldera, honako diagrama hau planteatu da, jarraitutako pausoak barne-hartzen dituena (Irudia 1. (Dendaluze, 2002))



Irudia 1. Jarraitutako ikerketa-diseinua (Dendaluze, 2002 egokitua).

Egin den ikerketa enpirikoa da, planteatutako gaia aztertzeko errealitateko datuak erabili direlako, baina ez da esku-hartzerik egin, gaur egun ezinezkoa izateaz gain (Ikastolak ez duelako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza emateko aukerarik), lanaren helburua metodologia konkretu baten aplikazioari begirada bat ematea delako.

Asko ikertu da kasu azterketen inguruan eta erabilera zabala du gizarte zientzien barruan. Autore ugari daude gai hau ardatz harturik lan asko plazaratutakoak. Horien artean dago Yin, kasu azterketa honela definitzen duena: ikerketa enpirikoa, fenomeno garaikide bat bere errealitatearen kontextuan aztertzen duena da, bereziki, fenomeno eta bere kontextuaren mugak ez direnean oso garbiak (Yin, 1981). Stake autorearen iritziz, kasu azterketa batek, kasu konkretu baten konplexutasuna biltzen du. Kasu azterketa, interes berezia sortzen duen zerbaitek sortzen du, bere ingurunearekin elkarrekintza bat daukana (Stake, 1998).

Lan honetan, hezkuntza komunitate barruan egon den elementu baten azterketa egin da, Hernaniko Langile Ikastolarena hain zuzen ere, honen parte izan diren irakasle eta ikasle ohien bidez. Horretarako aplikatutako metodoa mixtoa izan da, datu bilketa egiteko erabili diren tresnak kuantitatibo zein kualitatiboak izan direlarik. Zenbait gai aztertzeko Likert eskaladun galdetegi berdinak pasa zaizkie bai ikasle ohi zein irakasleei ere, baina galdera irekiren bat ere planteatu zaie informazio gehiago jasotzeko. Bestalde, galdetegietan jasotako erantzunak aztertuta, irakasleei talde eztabaida bat egitea proposatu zaie, zenbait informazio jasotzeko beharrezkoa ikusi delako.

Datuak bildu ondoren, hauen analisia egin da eta emaitzak taldekatu dira, ondorio batzuk idatziz eta helburuekin lotuz.

5.2.- Lagina

Guztira 98 pertsona izan dira lan honetan parte hartu dutenak. Alde batetik ikasle ohiak eta bestetik irakasleak, bi talde hauen iritzia jakitea ezinbestekoa delako lan honen ikuspegi orokorra izateko. 94 ikasle ohiak eta 4 irakasleak erantzun dute galdetegia. Era berean, eztabaida talde batera gonbidatu dira irakasleak, galdetegiaren argi geratu ez diren kuestio batzuk argitzeko eta pare bat gairen inguruan duten iritzia ezagutzeko.

5.2.1.- Ikasle ohiak

Ikasle ohien aldetik, etapa hartan Ikastolan bertan ikasteko aukera izan zuten zenbait ikasle ohi izan dira kasu azterketako lehenengo taldea osatu dutenak. Guztira 94 ikasle ohiak erantzun dute galdetegia. Adin tartea zabala izan da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza martxan jarri zeneko ikasleetatik hasi eta ia Langilen ikasi ahal izan zen azken urtera arteko ikasle ohiak parte hartu dute. Honek, beraz, ikuspuntu zabal bat jasotzeko aukera ematen du.

5.2.2.- Irakasleak

Irakasleak izan dira kasu azterketa aurrera eramateko beharrezkoak izan direnen bigarren taldea osatu dutenak eta ikastolaren bilakaera ezagutzeko aukera eman dutenak. Lana planteatu zenean, parte hartuko zuten irakasleen profila definitu behar zen nolabait, jatorri eta ibilbide desberdinak dituzten irakasleak pasa baitira urte guzti hauetan Langiletik. Hauek guztiak lan mugatu honetan biltzea ezinezkoa izanik eta batez ere metodologiari erreparatuz, hasiera edo ia hasieratik Ikastolaren pausoak jarraitu eta DBH-ko fasean ere Ikastolaren parte izandako irakasleekin harremanetan jartzea izango zela egokiena erabaki zen. Horrela, perfil hau betetzen duten 4 irakasleak osatu dute aurretik aipatutako galdetegia eta talde eztabaida batean parte hartu dute, gai batzuen konplexutasuna ikusirik (publikazioa eta Heziberri 2020) informazio gehiago eskuratzeko beharra ikusi delako eta zailtasunak aurreikusten zirelako galdetegi bidez egiteko. Parte hartu duten irakasleak 1977 eta 1985. urte bitartean hasi ziren Ikastolan lanean.

5.3.- Datuak biltzeko tresnak

Bi tresna erabili dira datuak biltzeko: aurretik aipatu bezala, alde batetik galdetegiak eta bestetik talde eztabaida (3. eranskinean ikus daitezke bai galdetegiak eta baita talde eztabaidan planteatutako galderak ere). Ondorengo puntuetan zehatzago azalduko da nola prestatu eta zabaldu den bakoitza.

5.3.1.- Galdetegiak

Bi galdetegi prestatu dira, bat ikasle ohientzat eta bestea irakasleentzat, hauek 3 ataletan banatzen direlarik: gelen antolaketa eta metodologia, motibazioa eta ebaluazioa. Zati bakoitzak 8-12 galdera bitartean ditu, gehienak Likert eskala bidez erantzutekoak, 1-6 eskala erabiliz. Oro har galderak berdinak izan dira irakasle eta

ikasleentzat. Hau egitearen arrazoia, datuen analisia erraztea eta gai berdinarekiko ikuspuntu desberdinak biltzea izan da. Hala ere, zenbait kasutan galdera ireki batzuk planteatu dira informazio gehiago jasotze aldera, item batzuen aurrean duten iritzia arrazoitzeko eskatuz edo zerbait gehiago gehitzeko aukera emanaz.

Galdetegiak *Google forms* aplikazioaren bidez egin dira, galdetegi eta inkestak egiteko tresna gisa baliagarria delako lan honetan planteatu diren datuak jaso ahal izateko. Emaitzen analisia modu desberdinetan egiteko aukera ematen du eta honek zenbait abantaila eskaintzen ditu datuak tratatzeko momentuan eta beste alde batetik, betetzeko eta zabaltzeko erraza delako. Galdetegiak *WhatsApp* aplikazioaren bidez eta posta elektronikoz bidali zaizkie parte-hartzaileei, paperean betetzekotan, presentzialki egin beharko litzateke eta zailtasun ugari sortuko litzuke datu bilketa prozesuak, batez ere ikasle ohiekin kontaktuan jartzeak eta presentzialki bildu beharrak sortuak.

Ikasle ohiei pasatzeko modua *WhatsApp* aplikazioa izan da, ikasle ohi eta hauen ezagunen bidez taldeetan zabalduz. Irakasleen kasuan aldiz, posta elektronikoko bidez pasa zaizkie parte-hartzaileei.

Galdetegiak 2-3 astetan erantzun dituzte eta ondoren, datuen azterketa bat eginda, irakasleekin egin beharreko talde eztabaidarako galderak finkatu dira.

5.3.2.- Talde eztabaida

Bestalde, irakasleen kasuan, zaila da publikazio prozesuaren nondik norakoak eta izandako ondorioak, zein Heziberri 2020k proposaturikoaren inguruko iritziak (antzekotasunik egon daiteken edo ez aztertuz alde batetik eta hezkuntzaren etorkizunari begirada bat ematearren bestetik) galdetegi baten bidez biltzea eta hortik talde eztabaida egitearen beharra.

Prozesua honakoa izan da: galdetegiak ikasle ohi eta irakasleei pasa ondoren, erantzunen azterketa bat egin eta zenbait galdera irakasleei berriz ere planteatu zaizkie talde eztabaidan, zalantza batzuk argitzeko.

Eztabaida talderako egun bat hitzartu da irakasleekin Hernaniko Biteri Kultur etxean eta planteatutako galderen inguruan aritu dira hizketan bi orduz. Grabatu eta transkribapena egin ondoren, datuak atera eta aztertu dira.

6.- DATUAK AZTERTZEKO TRESNAK

6.1.- Galdetegiak

Galdetegietatik ateratako informazioaren trataera egiteko SPSS eta Excel programak erabili dira. Honek, jasotako datuak bateratu eta grafiko bidez irudikatzeko aukera eman du, era honetan emaitzen interpretazioa erraztuz. Datuen analisia eta kasu batzuetan hauen konparaketa egiteko, % frekuentziak, batz bestekoak eta ANOVA programa oso erabilgarriak dira. Motibazioaren atalean adibidez, adinaren arabera

edo generoaren arabera aztertu ahal izan dira faktore hauek nola eragiten duten edo estatistikoki esanguratsuak ote diren lorturiko emaitzen arteko aldeak.

6.2.- Talde eztabaida

Talde eztabaidan kategorizazioa eta kodifikazioa erabili dira. Hau da, kategorizazioan, lana atal edo kategoria batzuen arabera banatu da eta jasotako emaitzak eta informazioa horien arabera sailkatu eta antolatu ahal izan da.

Kodifikazioan berriz, talde eztabaida egin ondoren bertan jasotako informazioa lanean jaso eta irakasleen anonimotasuna mantentzeko, kode bat eman zaio irakasle bakoitzari eta grabaketako zein momentuan aipatzen den zehaztu da, adierazitako ideia edo hitzei erreferentzi bat egiteko. Galdera irekietan jasotako informazioarekin gauza bera egin da ikasle batzuen iritzia azaltzerakoan, izan ere, galdetegia erantzuteko ordenaren arabeko zenbakia esleitu zaie eta horrelaxe adierazi da ikasle horri erreferentzia egiteko garaian.

7.- EMAITZAK

Emaitzen atala bi zatitan banatu da: lehenik eta behin ikasle ohiek galdetegietan emandako erantzunak azalduko dira eta bigarren atalean irakasleen erantzunak.

Era berean, galdetegietan planteaturiko 3 atalak bereizi dira (metodologia, motibazioa eta ebaluazioa) informazioa era sailkatu batean emateko.

Galdetegietatik jasotako informazioarekin datu trataera bat egin da SPSS programaren bidez. Honela, galdetegia osatzen duten itemak batera jarri eta datuak aztertzea erraztu du, irakurleak ere informazioa era bisual batez jasotzen duelarik eta emaitzen inguruko ideia azkar bat egitea ahalbidetzen duelarik.

Talde eztabaidan jasotako informazioa irakasleen atalean dago bildurik nagusiki, baina kasuren batean baita ikasle ohien atalean ere, argi ez zegoen itemen baten inguruko informazioa osatzearen. Irakasleen atalean, galdera sorta bakoitzaren amaieran bi taldeen erantzunen konparaketa labur bat egin da.

7.1.- Ikasle ohiek galdetegietan erantzundakoaren analisia

33 itemez osaturiko galdetegia pasa zaie ikasle ohiei eta ondoren biltzen dira jasotako erantzunak.


Item bakoitzaren azpian, kolore eskala batez adierazita daude Likert eskalaren balio eta esanahiak: urdin ilunez "ez nago batere ados"/"oso txarra" esaldiarekin bat datorrena (grafikoaren azpiko aldean dago) eta urdin argiz "erabat ados nago"/"oso ona" esaldiari dagokiona (grafikoaren goiko aldean). Kolore bakoitzaren gainean erantzun hori aukeratu duen ikasle kopurua adierazten duen zenbakia ikus daiteke.

Ikasleen perfila hobeto ezagutzeko, galdetegiaren hasieran 3 galdera egin zaizkie (adina, generoa eta ikasketa maila). Ondoren, galdetegia 3 ataletan sailkatuta

agertzen da: metodologia, motibazioa eta ebaluazioa. Emaitzak aurkezteko garaian ere, eskema berdina jarraitu da eta informazioa 3 zati horietan banatu da.

7.1.1.- Ikasle ohien datu orokorrak. Perfila

Lehenik eta behin ikasle ohien perfila aztertuko da 3 itemen bidez: adina, sexua eta ikasketa maila (Irudia 2)



Irudia 2. Ikasleen perfila.


Bildutako datuen arabera, jasotako erantzunen %44a, 31-37 urte bitartekoek eman dituzte, %36a, 24-30 urte bitartekoek eta %20a 18-23 adin tartekoek. Emakumeak izan dira gehiengoa, %72a eta ikasketa mailari dagokionez, %70k unibertsitate ikasketak ditu eta %17a Lanbide Heziketa ikasketak egindakoa da. Honen ondotik, perfil desberdineko ikasleak daude kopuru txikiagoetan.

Galdetegiak hasiz, metodologia eta gelen antolaketa, motibazioa eta ebaluazioa izan dira landutako atalak eta beraz, hauek aztertzeari ekingo zaio ondorengo lerroetan.

7.1.2.- Langile ikastolaren metodologia eta gelen antolaketaren perzeptzioa

Atal honetan, ikasgelak nola antolatzen ziren eta ikasleen lan egiteko era aztertu nahi izan da. Honetarako 12 galdera planteatu dira eta hauek orokorki, ondorengo taldeetan multzokatu ditugu: ikasleen kokapena eta gelen antolaketa, ikas materiala eta metodologia (lan ohiturak, inklusibitatea eta talde kooperatiboak).

Lehenik eta behin esertzeko moduari erreparatu diogu (Grafikoa 1).




Grafikoa 1. Ikasleen esertzeko modua.

Aukera bat baino gehiago selekzionatu dezaketen itema proposatu zaie ikasle ohiei: taldeka, "U" forman, binaka edo banaka. Erantzunen arabera argi geratzen da gehienbat taldeka esertzen zirela ikasleak (%60k aukera hau jarri du) eta zenbait kasutan, binaka edo "U" forman ere egoten ziren, taldeka egoteaz gain (%18ak eta %9ak aukeratu dute erantzun hau, hurrenez hurren). Aipatzekoa da binaka edo "U" forman soilik esertzen zirela 5 pertsonak bakarrik erantzun dutela eta inork ez bakarka esertzen zirela.

Atal honetan galdetzen diren gainerako 11 galderak, azpiko grafikoetan jasota daude.

Lehen bost galderetan gelaren antolaketa, lan ohiturei eta jarraitutako bideari buruz galdetu zaie (Grafikoa 2).




Grafikoa 2. Gelen antolaketa eta funtzionamendua.

Gelen antolaketari dagokionez, gehiengoak uste du Langileko ikasgelen antolaketa ez zela beste ikastetxeetakoa bezalakoa, 94tik 31 ikaslek erantzun dute ez daudela batere ados eta 27k ez daudela ados, guztira %60 inguru. Grafikoa 1-ek adierazi bezala, taldeka esertzen ziren ikasleak eta 2. eta 3. galderak planteatzean, talde lanaren garrantzia argi geratzen da, elkarlana bultzatzeko garaian eta talde lanak

egitean. Erantzunen %90a erabat ados eta ados izan dira. Orokorrean emaitzak ikusita esan daiteke ikasle ohien iritziz ikasgaiak bazeudela, 61 ikaslek erantzun hori eman dute eta testu liburuen erabilera urria zela, 54 ikaslek pentsatzen dute hori, % 50k baino gehiagok. Galdera batzuen aurrean ez dago ikasleen aldetik erantzun baten aldeko hautua. Hau gertatzen da adibidez etxeko lanen inguruan galdetzen zaienean, nahiz eta joera garbia egon ezezkoaren alde, izan ere, %40k dio ez zeudela.

Item batzuren aurrean izandako bateratasun ezak galdera hauek talde eztabaidan planteatzea ekarri du. Izan ere, gelen antolaketa gainerakoen desberdina dela jaso da baina ez dago argi nolakoa zen. Gelan taldeka esertzeko mahai handiak egoten ziren, ez ikasle bakoitzarentzat mahai indibidualak. "Gela tailer bat izatearen ideia genuen. Gela antolatzeko garaian hori hartzen zen oinarritzat. Mobiliarioa erosteko partida bat ematen ziguten eta ez zegoen mahai handirik katalogoetan, fisikako laborategiko mahaiak erosten genituen eta ikasleak ez ziren iristen mahaiak altuak zirelako" (1, 4 irakasleak, 58'20"). Etxeko lanen inguruan hitz egindakoaren arabera "lantrato bidez egiten genuen lan eta Ikastolan horretarako utzitako orduak ez baziren aprobetxatzen, etxean bukatu behar zituzten lanak" (1 irakaslea, 1h10'32").

Ondorengo blokeak hurrengo 5 galderak jasotzen ditu, metodologia, ikasleak baloratuak sentitzen ote ziren edo euren erritmoa errespetatzen zen biltzen dituztenak (Grafikoa 3).



Grafikoa 3. Metodologia eta ikasleen balorazioa.

Ikasleen erritmoa errespetatzen zela uste du gehiengoak (24k ados daudela erantzun dute eta 27k erabat ados, guztira %55ek) eta emaitza antzekoak jaso ditu ikasle guztiak baloratuak sentitzen zirela dioten itemak. Lan egiteko modu horrek onurak ekartzen zizkiela euren ikas prozesuari iritzi dio %95k, 59 ikaslek erabat ados eta

27k ados daudela erantzun baitute. %80k dio Langileren metodologia izan duen ikas metodori onena izan dela.

Galdetegian bertan, galdera ireki batzuk planteatu dira ikasle ohien iritzia jasotzeko asmoz. Jasotako erantzun guztiak hemen jartzea ezinezkoa da espazio arazoengatik (68 erantzun jaso dira atal honetako galdera irekietan), baina orokorrean ikasleek transmititzen dutena edukiez gain beste gauza batzuk lantzen zirela da. Jarraian bildu dira horietako batzuk (ikasle ohiek eta irakasleek galdera irekietan emandako erantzun guztiak 4. eranskinean ikus daitezke).

“Ez dakit materia gehiago ikasten ote genuen, baina balore eta elkarbizitzarako bai ikasten genuela gehiago” (2. ikaslea).

“Metodologia berez oso ondo dago, baina irakasle guztiek ez zuten aplikatzen DBHn. Lehen Hezkuntzan argiago eta modu aberasgarriago batean ikasi genuela uste dut, bai irakasle inplikatu gehiago zegoelako eta baita Lehen Hezkuntzan horrelako metodologia bat garatzea errazagoa delako agian” (11. ikaslea).

“Ikasgelako aniztasuna errespetatzen duelako. Ikasle bakoitza errespetatu eta elkartasuna sortzen delako ikasleen artean” (25. ikaslea).

“Oso prozesu naturalean ikasten genuen, ulermenetik ikasten eta ez testuliburuak buruz ikasten” (29. ikaslea).

“Testuliburuetan ez dauden gauzak ikastea baimentzen du: klase-kideekin lana banatzea, zure kabuz lana antolatzea, informazioa bilatzea... gainera ikasketa prozesuan aktiboki parte hartu behar genuen (datu mordoa buruz ikasi ordez) eta gu prozesu horretan garrantzitsu ginenez interesa eta motibazioa sustatzen dituela iruditzen zait” (46. ikaslea).

Ondorengo taulan (Taula 1), metodologia itemen batz bestekoak jaso dira, emaitzen analisi osatuago bat egite aldera.

Taula 1. Metodologia itemen batz bestekoak.


Metodologia	Batz bestekoa
1.- Gelen antolaketa beste eskoletakoa bezalakoa zen	2,39
2.- Horrela esertzeak elkarlana bultzatzen zuen	5,52
3.- Talde lanak ohikoak ziren	5,46
4.- Ez zegoen ikasgairik Langilen	1,67
5.- Testu liburuak erabiltzen ziren	2,45
6.- Etxeko lanak bidaltzen ziren	3,11
7.- Ikasle bakoitzaren lan erritmoa errespetatzen zen	4,57
8.- Ikasle guztiak baloratuak sentitzen ziren	4,68
9.- Lan egiteko modu hori onuragarria da	5,51
10.- Metodologia honen bidez gehiago ikasten da	4,99
11.- Langileren metodologia izan dudana onena izan da	5,17

Ikus daiteke zenbait galderen aurrean ikasleen arteko adostasun maila nabaria dela (1-6 eskalan erantzun asko daude 5 inguruan edo hortik gora eta bi inguruan edo hortik behera), etxeko lanen galdera da desadostasun gehien sortzen duena.

7.1.3.- Ikasle ohien motibazioa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan

Galdetegian planteaturiko bigarren blokea motibazioari buruzkoa da. Aurreko blokearekin egin den bezala oraingoan ere itemak taldekatu egin dira eta emaitzak hiru grafikotan banatu dira emaitzak argiago ikus daitezzen.

Honela ba, 12 galderaz osatua dago motibazioaren bloke hau. Lehenengo bost galderatan gelako harreman mota desberdinei buruz eta lanerako materialaren egokitasunaren inguruan galdetu zaie (Grafikoa 4).



Grafikoa 4. Harremanak eta materiala.


Balorazioak orokorrean oso onak dira, balizko 6 aukeren artean 2 positiboenak gailentzen dira item guztietan (grafikoetan irudikaturiko goiko bi aukerak).

Lehen lau galderetan ikasgela barruan sorturiko harremanei buruz (bai ikasleen artekoa zein irakasle-ikasle artekoa ere), gelako giroari buruz eta jarrerari buruz galdetzen zaie ikasleei. Guztietan balorazio positiboa da nagusi, oso ona eta ona erantzunek %70-%90 tarte osatzen baitute. Materialari dagokionez, 16. galdera, balorazioa ere hilda beretik doala esan daiteke.

Ikastolak politika zehatz bat jarraitzen zuen materialaren inguruan, izan ere, ikasleek ez zuten etxetik inolako ikas materialik eramaten. Ikasgelan zegoen materiala ikasle guztiena zen eta hala konpartitu eta errespetatu behar zuten. Honen inguruan nolako adostasuna duten galdetu zaie 17. galderan. 94 ikasletik 70ek oso ona bezala baloratu dute aukera hau eta 16k ere positiboki, bi erantzun blokeen artean %90 baino gehiago osatzen dute. "Materiala (papera, rotuladoreak, margoak, etab.)

konpartituta izaten zen. Horren helburua, amankomunean materiala izatea, zaintzea eta errespetatzea zen” (2 irakaslea, 46’24’’).


Bestalde, ondoko grafikoan bildutako galderak, ikastolan sortutako emozioak eta motibazioak aldaketaren bat izan ote zuten ikasturtearen arabera edo behin ikastolatik ateratakoan planteatzen die ikasleei (Grafikoa 5).



Grafikoa 5. Motibazioa eta honen aldaketa.

Ikas materialak, honen erabilerak eta gelako harreman eta giroak ikasleen motibazioan izandako eragina era positiboan baloratu dute, bi balorazio positiboaren artean %75a osatzen dute. DBH-ko etapa desberdinetan motibazio aldetik aldaketaren bat egon ote zen jakiteko, 19 eta 20. itemak proposatu dira. Lehen zikloan oso ona erantzun duten ikasleak 25 izan dira eta ona 37, ia %70. Bigarren zikloan zertxobait jaitsi da balorazio hori baina nahiko antzekoa dela kontsidera daiteke. 21. galderak Langile ez zen beste ikastetxe batean izandako motibazioagatik galdetzen du eta beste biek alderatuta txikiagoa dela ikus daiteke, 4 ikaslek oso ona bezala kalifikatzen dute eta 22k ona dela diote, ia %30.

Azken itemak norberaren sentazio edo emozioekin loturik daude (Grafikoa 6).



Grafikoa 6. Emozioak.

Ikastolara lasai joaten zirela dio gehiengoak (erabat ados nago eta ados nago erantzun dutenak %90 izan dira) eta beste ikastetxe/instituto/unibertsitate batera joatean sentsazio hori aldatu ote zen galdetzean, erantzunak askotarikoak izan dira, baina ia %50-ak ados edo erabat edos erantzun du.

Galdera irekietan jasotako erantzunen arabera, batzuk adierazten dute motibazioa ez zegoela metodologiarekin lotuta, ikasteko gaiarekin baizik, hau da, unibertsitatean (edo beste ikasketa batzuetan) eurek aukeratutako ikasketak egin ahal izan zituztela eta horrek motibatzen zituela. Beste batek aldiz honakoa dio: "Ikastolan etxean bezala sentitzen nintzen, lasai eta eroso... etxeko goxotasun horrekin bezala! Ondorengo aldaketekin arrotzagoa eta hotzagoa zen dena (harremanak, metodologia, eraikinak...)" (3. ikaslea). "Ikastetxe nahiko handia izan arren ikasle eta irakasle guztien artean harreman estua zegoen, gertukoa" (6. ikaslea).

Emaitzen bateragarritasuna aztertu asmoz, aurreko atalean egin den bezala, hemen ere item bakoitzaren batz bestekoak atera dira (Taula 2).

Taula 2. Motibazioa itemen batz bestekoak.

Motibazioa	Batz bestekoa
12.- Nolakoa zen ikasleen arteko harremana?	5,23
13.- Eta irakasle-ikasle arteko harremana?	5,05
14.- Nola baloratuko zenuke gelako giroa	5,34
15.- Nola baloratuko zenuke ikasleek zuten jarrera ikasgelan	4,85
16.- Eta erabilitako materiala?	5,12
17.- Zein iritzi duzu erabilitako ikasmaterialari buruzko politikaren inguruan?	5,66
18.- Aurreko guztiak zure motibazioan zein eragin zuela esango zenuke?	5,17
19.- Ikastolara joateko motibazioa nolakoa zen DBH 1 eta DBH 2?	4,77
20.- Ikastolara joateko motibazioa nolakoa zen DBH 3 eta DBH 4?	4,36
21.- Beste ikastetxe/instituto/unibertsitatean nolakoa izan zen zure motibazioa?	3,85
22.- Lasai joaten zinen ikastolara	5,39
23.- Sentsazio hori aldatu egin zen beste ikastetxe/ instituto/ unibertsitate batera joatean	3,92

Batz bestekoen balioak ikusirik, orokorrean bat datoz, 6 puntu maximoetatik bostetik gora daudelako gehienak. Edozein kasutan, badaude datu dispersio bat adierazten duten itemak ere, esaterako, motibazioaren nolakotasuna Langile ez zen beste zentro batean (3.85) edo ikastolara lasai joatearen sentsazioa aldatu izana (3.92).

Bestalde, datuek aukera ematen zutela ikusita, konparazio bat egin da adin tarte desberdinetako ikasleengan motibazioak nola eragiten zuen aztertzeko, estatistikoki (Taula 3).

Taula 3. Motibazioaren bataz bestekoa adin tartearen arabera.

Adina	N	Bataz bestekoa	Desbiazio estandarra	F	Sig.
18-23	18	55,3333	7,88893	4,627	,012
24-30	33	58,4848	5,48362		
31-37	37	60,6486	5,66773		
Totala	88	58,7500	6,36306		

Planteatutako 3 adin tartetatik parte-hartzaile kopuru handiena 31-37 urte bitarteko ikasle ohiena izan da, 37 ikasle ohiek erantzun baitute galdetegia eta gutxien 18-23 bitartekoena. Guztien motibazioa altua dela kontsidera daiteke, izan ere 55,3, 58,5 eta 60,6 balioak lortzen dira, hurrenez hurren, adin tarte bakoitzarentzat (12-72 balioen arteko eskala baten arabera datuak dira). Adinaren arabera talde horien artean izandako motibazio diferentzia hori estatistikoki esanguratsua dela esaten digu 0,012 balioak eta hori aztertzeko ondorengo datuak ikusiko ditugu (Taula 4).

Taula 4. Adinaren arabera taldeen motibazio balioen esanguratsutasuna.

	(I) Adina	(J) Adina	Bataz bestekoen aldea (I-J)	Errore estandarra	Sig.
DMS	18-23	24-30	-3,15152	1,79130	,082
		31-37	-5,31532*	1,75680	,003
	24-30	18-23	3,15152	1,79130	,082
		31-37	-2,16380	1,46375	,143

Bi datuen aldea esanguratsua den edo ez jakiteko, "Sig." zutabeko datuak hartu behar dira kontuan. 0,05 balioa hartzen da mugarriz gisa eta hortik gora dauden balioak estatistikoki ez esanguratsutzat hartzen dira, eta hortik behera daudenak aldiz, estatistikoki esanguratsutzat. Alderaketa egiteko, adinaren arabera taldeak binaka hartuko dira. Segidako bi talde gazteen artean (18-23 eta 24-30) esanguratsutasuna ("Sig." bezala adierazten dena taulan) 0,082-koa dela ikus daiteke. 0,05 baino handiagoa denez, esan daiteke estatistikoki ez dagoela desberdintasun esanguratsurik bi adin tarte hauen motibazioan. 18-23 eta 31-37 alderatuz gero, 0,003 balioa lortu da, 0,05 baino txikiagoa denez, adierazten du talde gazteenaren eta helduenaren arteko motibazioaren arteko aldea estatistikoki esanguratsua dela. Azkenik, segidako bi helduenak konparatuko dira, 24-30 eta 31-37 bitartekoak. Taulan ikus daitekeenez, 0,143ko datua ematen du, beraz, ez da estatistikoki esanguratsua izango bi adin tarte hauek duten aldea motibazioan.

Adin tartea aztertzeaz gain, generoaren araberrako motibazioaren eragina ere ikusi nahi izan da (Taula 5).

Taula 5. Generoaren araberrako motibazioaren batz bestekoa.

Generoa	N	Bataz bestekoa	Desbiazio estandarra	Errore estandarraren batz bestekoa
Emakumea	64	59,8125	5,40392	,67549
Gizona	25	56,0800	7,72938	1,54588

Erantzunen 64a emakumezkoena izan da eta 25 gionezkoena. Datuak ikusita, emakumeen motibazioaren batz bestekoa 59,8 da eta gionezkoena 56,1, beraz, alde gutxirekin baina emakumezkoak motibatuago joaten ziren ikastolara.

Datuen esanguratsutasuna aztertzeke, ondorengo datuei erreparatu zaie (Taula 6).

Taula 6. Datuen esanguratsutasuna aztertzeke datuak.


Motibazioa	Prueba de Levene de igualdad de varianzas		t	gl	Sig. (bilateral)
	F	Sig.			
Se asumen varianzas iguales	1,954	,166	2,580	87	,012
No se asumen varianzas iguales			2,212	33,574	,034

Levene proban emandako emaitzak ikusirik, 0,166 balioa 0,05 baina handiagoa izateak bariantza antzekoak izan behar ditugula kontutan dio eta datu horiek jarraituta 0,012 balioa ematen du "Sig."-rentzat. 0,05 baino txikiagoa izanik, motibazioan izandako aldea estatistikoki esanguratsua dela esan daiteke.

7.1.4.- Langile Ikastolaren ebaluazio modeloa

Galdetegiko azken blokea ebaluazioari dagokiona da. 8 itemez osatua dago atal hau eta Langilen zein ebaluazio metodo erabiltzen den aztertzeaz gain, ikasleen iritzia ezagutu nahi izan da prozesuaren egokitasunaz. Emaitzak bi grafikotan bildu dira.

Lehenengo bi itemak azterketen eta kalifikazioen ingurukoak dira (Grafikoa 7).



Grafikoa 7. Azterketak eta notak.


Azterketen eta noten inguruan galdetuta, ez dago bateratasunik erantzunetan, nahiz eta gehiengoak dioen ez dagoela ados azterketak eta notak egotearekin.

Eztabaida taldean planteatu dira bi galdera hauek. Azterketarik ba ote zegoen galdetuta, "klasikoak ez. Ebaluazio baten jarraipena bada azterketa, orduan bai" (1 irakaslea, 1h 16'10"). Aipatzen da gaur egungo ebaluazioa dela ikasle denak toki berera denbora berdinean iristea eta zentzu honetan "orduan ere bazen hala. Aldatu nahi izan genuen hori eta nik uste dut neurri batean lortu genuela. Ebaluaketaren inguruan gu ere joan gara pausoak emanez, hausnartuz, hau egingo dugu, bestea,... aurrebaluazioa, lantratoaren barruan azken xedea... Joan gara ikasten eta hobetzen. Ez da erraza baina ahalegin bat egoten zen gure artean neska mutil bakoitzaren bilakaera kontuan edukitzeko. Inor ez dago geldi (ikasleengatik dio hau)" (2 irakaslea, 34'55").

Kalifikazioaren inguruan ere galdetu zaie eta nota jartzen zela baina atzetik azalpen asko ematen zirela diote. Honek bazuen berezitasun bat, izan ere aipaturiko nota horren inguruko azalpenak irakasleak, guraso eta ikaslearekin berarekin egindako bilera batean aipatzen zizkien. "Ikaslea bertan egotea pauso garrantzitsua izan zen, aditu batekin landu genuen denboraldi batean ze garrantzitsua zen adin batetik aurrera ikaslea bera egotea bere prozesuarekin arduratzen eta jarri behar zuena jartzen, ohartzeko. Aldi berean animatu egiten zen ikaslea eta nolabait bere hutsuneak ikusten zituen. Ebaluaketa ikasle bakoitzarekin egiten zen, jarraipena zuzena zen" (3 irakaslea, 39'50"). "Oraindik jarraitzen da ebaluazio horrekin: banan-banan gurasoekin, nota soilik izan ordez esplikazio gehiagorekin egiten da" (4 irakaslea, 41'05").

Horrekin batera, Langileen gurasoei ematen zaien garrantzia azpimarratzen da: "Gauza bat egiten zitzaien zaila kanpotik zetozen irakasleei (guri ere ez zitzaigun erraza egiten), gurasoekiko harremana. Eginaren poderioz eta esperientziaz ikusi genuen ona zela gurasoak partaide izatea eta helburu berdinak izatea, hori laguntza bezala ikusten genuen; horrek txokatzen zien" (3 irakaslea, 39'30").

Galdetegiarekin jarraituz, gainerako 6 itemak (26.-tik 31.-era) ebaluazioa egiteko moduaren ingurukoak dira eta honekiko adostasunari buruz galdetzen zaie (Grafikoa 8).



Grafikoa 8. Ebaluazioaren izaera eta adostasuna.

Garbi ikusten den bezala, ikasle ohiak ados daude ebaluazioa prozesu bat dela esatearekin eta ez dela dena azterketa batean erabakitzen, edukiez gain beste balore batzuk ere kontuan hartzen direlarik. Honek ikasketa prozesuan laguntzen duela uste dute. Erabat ados nago eta ados nago erantzunak %90 inguruan dabilta item guztietan.

Galdera irekietan jasotako erantzunek (84 guztira) honakoa islatzen dute: ikasleak baloratuak sentitzen ziren ikasgelan egindako lanaren arabera. Ez zen dena azterketa batera mugatzen, ez zuten azterketarako ikasten. Garrantzia ematen zitzaion ulertzeari eta ez hainbeste buruz ikasteari, hau da, ikasle bakoitzaren ikasketa prozesua zen baloratzen zena eta ez denak toki berdineran denbora berdinean iristea. Ikasleek galdera ireki honetan emandako erantzun batzuk jaso dira ondorengo lerroetan:

“Tamalez, hezkuntza sistemak ez dira aldatu eta arrazonamendua erabili beharrean, azterketak gainditzeko buruz ikastera eta segituan ahaztutzero "ikasten" dugu gero sisteman jarraitzeko. Baina Langile-n ikasitako baliabideak erabilgarriak dira beti“(12. ikaslea).

“Azterketa batek ez du benetan erakusten zerbait ulertu eta barneratu duzun, azterketa egin duzun momentuan errepikatzeke gai zarela soilik frogatzen dute. Garrantzia prozesuari emateak berriz, hasieran non zinen, zenbat lan egin duzun eta zenbat aurreratu duzun ikusteko balio dizu”(20. ikaslea).


“Alde negatiboak: Langiletik kanpo, ikasleak errealitate berri baten aurrean 'galduta' sentitzeko aukera sor dezake (25. ikaslea).

“Langilen ez ninduten nota batekin ebaluatzen, nirekin eta gurasoekin bilera egiten zuten, tutoreak nire ikasketa prozesuan arreta ipiniz, nire lan egiteko moduan bakarka nahiz taldeka, nire harremantzeko moduan...” (26. ikaslea).

“Ikastolan ikasleen garapena eta gizarteratzeko prestutasuna baloratu behar dela diot eta ez egun batez gai espezifikoki bati buruz duen informazioa. Jakituria baloragarria da baina garrantzitsuena bakoitzak bere baitan pentsatzeko eta arduratsu jokatzeko ikaskuntza da hezkuntza, nire ustez” (31. ikaslea).

“Lanbide Heziketara arte ez nintzen ebaluatua sentitu, alegia, pertsona bezala baloratua bai baina nota batekin ez” (38. ikaslea).

Ikasleen DBH arteko ikas-prozesuan aldaketarik egon zen jakiteko, ordura arteko ikasketak Langilen egin zituzten galdetu zaie (Grafikoa 9).



Grafikoa 9. Lehen Hezkuntza Langilen egin zuten ikasleak.

Erantzunen arabera galdetegia erantzun duten ikasle ohien gehiengoak Langilen egin zuten Lehen Hezkuntza ere, %96ak.

Erantzunen uniformetasuna aztertzeke asmoz, atal honetako itemen bataz besteko balioak kalkulatu dira (Taula 7).

Taula 7. Ebaluazioa itemen bataz bestekoak

Ebaluazioa	Bataz bestekoa
26.- Langilen azterketak egiten ziren	3,24
27.- Ikasleen ebaluaketa nota baten bidez egiten zen	2,77
28.- Ikasleen ebaluaketa prozesu baten ondoren egiten zen	5,56
29.- Nolako adostasuna duzu prozesu honen inguruan?	5,54
30.- Egokia da	5,46
31.- Ebaluazioan beste era bateko baloreak kontutan hartzen ziren	5,39
32.- Era horretan gehiago ikasten da	5,40
33.- Modu positiboan baloratuko zenuke Langilen aplikatutakoa	5,63

Bertako datuak begiratu zera esan daiteke: azken 6 galderetan oso modu positiboan baloratzen da ebaluatzeke modu hori, 6 puntu maximoetatik 5,4 delarik baxuena eta 5,63 altuena. Azterketen ebaluaketa nota baten bidez egiten zela galdetzean,

gehiengoak ezetz uste du, 2,77ko bataz bestekoarekin eta azterketak egiten ote ziren galdetuta, ez dago erantzuna oso argi (3,24).

7.2.- Irakasleek galdetegietan erantzundakoaren analisia

Ikasleekin egin den modura, irakasleengandik jasotako erantzunak ere azpiataletan banatu dira. Kasu honetan 5 azpiatal izango dira, galdetegietan erantzundako 3 atalez gain, talde eztabaidan jasotako publiko izateko bidea nolakoa izan zen eta Heziberri 2020-rekin zein antzekotasun (baldin badaude) izan ditzaken ere jaso direlako bertan. Azken bi hauek izan dira lehenengo aztertu direnak eta ondoren galdetegietako erantzunak. Eztabaida taldean parte hartu duten 4 irakasleen anonimotasuna mantentzeko, "1 irakaslea"-etik "4 irakaslea"-ra zenbatu ditugu.

7.2.1.- Publifikazio prozesua Langile Ikastolan

Lehen puntu honetan, Langile Ikastolak publiko bihurtzeko bidea nola egin zuen jakiteko zenbait galdera planteatu zaizkie irakasleei erabakia nola hartu zen eta honek izandako ondorioak ezagutzeko. Hasteko, publiko izaera lortzeko arrazoiengatik galdetu zaie eta baita honek ikastola osatzen zuen komunitate osoan izandako eragina ere, hau da, irakasle, ikasle edo gurasoengan izandako ondorioak.

Honen aurrean zera aipatu du partaideetako batek: "Berez beti izan genuen publiko sentimendu hori, nahiz eta publiko ez izan, horrela funtzionatzen genuen" (3 irakaslea, 2'18"). "Neska-mutilak hartzerakoan guk ez genuen inolako bereizketarik egiten, gure ikastolan denak onartuak izaten ziren. Hasieratik Euskal Eskola Publikoa izan behar zuenaren bila ibili ginen" (2 eta 4 irakasleak, 2'40"). Komentatzen dute Ikastolan hautazkoa zen kuota bat zegoela, beraz, inor ez zen ikastolan sartu gabe gelditzen arazo ekonomikoengatik.

Arrazoiari dagokienez, motibo desberdinak joan dira ateratzen elkarrizketan zehar. "Zama ekonomikoa zen. Kuota bat zegoen eta laguntza era desberdinetan lortzen genuen. Horrek erlazioetan eragina du, eguneroko bizitzan" (3 irakaslea, 3'15"). "Gurasoak patrioiak ez izatea zen helburua, guk hori garbi geneukan, erlazio laboralak administrazioarekin izan behar zutela" (2 irakaslea, 4'05"). Beste batek gehitu zuen: "Nire ustez lehenengo arrazoa politikoa zen: zein eskola mota nahi genuen eta non nahi genuen, eta horrek eskola publikoaren bidean jartzen gintuen. Aipatu den beste guztia ere, noski. Bestalde, gure irakasleen aukeraketa moztu zen horrekin, ez dakit onerako edo txarrerako. 1992tik 27 urte pasa dira, ez dakit bilakaera horretan zer gertatzen den orain, aztertzea izango litzateke, ezin da konparatu beste erabaki bat hartu izan balitz nola egongo ginaken" (1 irakaslea, 5'20").

Publifkazio prozesu horrek metodologian izango zuen eraginaren inguruan honakoa komentatu zuten: "Ni garai hartan oso kezkatua nengoen, esaten nuen: hemendik lehengo eskola nazional edo publikoaren sistemara goaz. Kezka batzuk banituen momentu hartan, baina geroztik gertatu zait, publifikatu ez ziren ikastolei erreparatuz, aukera izanda proiektuak aurrera eramateko, beste modu batera, irakaskuntza eredu batzuk bultzatzeko... ez dut ikusi egin dutenik ibilbide hori" (2 irakaslea, 7'20"). Metodologiari begira zera dio beste irakasle batek: "Ni behintzat horrek ez ninduen gehiegi kezkatu momentu hartan, zeren garbi zegoen geunden irakasleok jarraituko genuela geunden tokian eta horrek proiektuarekin jarraitzeko bidea ematen zuen. Alde horretatik nik uste dut nahiko lotua zegoela alderdi hori, eta horrela izandu zela. Garrantzitsua izan zen ekipo bat ginela, eta nahiz eta ondoren jendea sartzen joan, ekipo zabal bat izatea helburu batekin oinarrizkoa izan zen. Nahiz eta publifikatu, proiektuarekin jarraitu genuen. Prozesua aurrera joan zen eta DBH-n ere ekipoa nahiko finkoa izan zen, baina jende berria sartu zen eta jende berria sartzeak eta kopuru dexente batean, ekarri zuen aldaketak eman beharra. Baina lehendik geunden ekipoak mantendu egin zuen nolabait aurretik genuen proiektua, maila batean" (3 irakaslea, 8'50"). Aipatzen dute publiko egitean eta proiektuarekin jarraitzeko nahiaren aurrean posible izan zutela. "Alde horretatik ez genuen izan oztoporik, onarpena genuen. Berritzegunetik, delegaritzatik, inspektore eta bestelako jendearen babes osoa genuen. Hasieran dena ondo joan zen baina momentu batetik aurrera oztopoak ere izan genituen, fusioarekin hasi zirenean esaterako" (2 eta 4 irakasleak, 11'05").

Fusio prozesuaren inguruan "niretzat ez zen kontutan izan Langilek proiektu bat zuela. *Tabula rasa* bat bezala egin nahi izan zuten. Eta hor nik bai ikusi dut publiko izateak ez duela nolabait kontuan izan gure berezitasun hori. Eta hori aurrera eramateko bideak ez dizkigu eman, baizik eta aldi berean kendu egin dizkigu" (3 irakaslea, 11'50"). Fusioa arrazoi ekonomikoengatik egin zela aipatu da eta baita irakaslearen egoeragatik ere. "Langileri mugatu egin zitzaion ikasle kopurua handitzea, 4 lerroekin jarraitzeko irakaslerik ez baitzuten bidaltzen. Beste ikastetxe batzuetan aldiz, irakasle goa larri zebilen" (3, 4 irakasleak, 13'02"). Herriko DBH osoaren fusioaren aurrean, Langilek zikloarekin jarraitzeko aukera defendatu zuten: "Ez da kontutan izan gero DBH bakarra egiterakoan masifikazio izugarria, ohitura desberdinetatik zetozen haurrak, interesgarria ere izan daiteke, nik ez dut negatibotzat jotzen beti. Denak toki baten baina ikaragarriko kopuruan... Guk arrazoi hori erabili genuen Langilek DBH ematen jarraitzeko aukera izan zezan eta zergatik ez ziren egiten herrian bi DBH proposatu genuen, bi DBH-rako jendea bazegoelako, baina ez genuen lortu" (2 irakaslea, 13'50"). "Azken urteetan ikusi da masifikazio

hori: 7 linea, 8... edozein planteamendu egiteko, edozein irteera,... ezinezkoa da" (4 irakaslea, 14'20").

Publiko izatearen erabakia nola hartu zen galdetzean, Ikastola osoaren erabakia izan zela diote. "Batarraren aurretik gurasoekin lan handia egin zen. Zegoen zatiketa ikusten genuen bai klaustroan, bai familietan, boto bat gora, boto bat behera erdia eta erdia ginen eta orduan erabaki zen, bozketan ateratzen zena ateratzen zela aurrera jarraituko genuela denek elkarrekin, inork ez zuela alde egingo. 19 botorengatik atera zen publiko. Demostratu genuen benetako asanblearioak ginela: hemen eztabaidatu genuen, jarri genituen gure karta guztiak mahai gainean, elkarri ulertu genion edo ez... baina ondo hitz eginda hartu zen erabakia. Guk hori beti egin dugu Ikastolan eta ateratzen zena aurrera eraman. Hori eredugarria izan zen Langilen" (1, 2 irakasleak, 28'25"). Publiko izatearen onuretako bat ekonomikoa zen eta zentzu honetan honakoa diote: "Nik uste dut karta bat egin zela esanez egoera berriaren aurrean (publiko izatea) aportazioa aldatzea bazegoela, kuota jaitsi nahi bazuten. Askok ordaintzen jarraitu zuten" (1, 3 irakasleak, 30'45").

Honez gain, aurretik aipatu da irakasleentzat ekipoak zuen garrantzia eta zentzu honetan diote: "Ekipoan asko ikasi genuen: garrantzia ematen genion irakasleen artean gai sozial guztiei buruz hitz egiteari, gure iritzia emateari,... nahiz eta irakasle bakoitzak bere iritzia eta ikuspuntu desberdina izan, gai ginen pertsona bezala buelta emateko eta ekipoarekin berriro aurrea egiteko" (1 irakaslea, 31'10") besteek gaineratzen dute hau posible zela helburu amankomun bat zutelako.

7.2.2.- Heziberri 2020-ren inguruko iritzia

Planteatutako bigarren gaia Heziberri 2020 izan da, kontuan harturik gaur egun indarrean dagoen hezkuntza eredu pedagogiko bat dela, interesgarria izan daiteke jakitea nola ikusten duten irakasleek.

Heziberriren inguruan galdetuta, gehiengoak ez duela ezagutzen aipatu du, izan ere duela urte batzuk jubilatuta ziren. Kasu honetan, 4 irakaslea duela 2 urte jubilatuta zela eta, zerbait entzuna du honen inguruan. Edozein kasutan, azken urte eta hamarkadetan egondako Lege aldaketa guztiekin ezin dela egonkortasun bat lortu dio, izan ere, ikasturte batean helburu batzuk planteatzen dira bai Lege edo Berritzeguneen aldetik, eta ondorengo ikasturtean beste batzuk bete behar dira eta horrela oso zaila da eraginkorra izango den zerbait egitea.

Ados daude esatean "goitik" datozen agindu guzti horiek bide motza dutela, alegia, zentroan, bertako langileek sinesten ez duten zerbait aurrera eramatea oso zaila da

eta are gehiago, planteatzen diren eginkizun berri horiek nola gauzatzen diren azaltzeko ikastaro sinple batzuk emanez egiten bada. Langilen zuzendaririk ez zegoela aipatzen dute, bai ofizialki administrazioarekin izandako harremanetarako baina ez zentruko funtzionamenduan.


Gaur egungo irakaslearen inplikazioaren inguruan, "Azken urteetan denetik egon zen, ondoan eta adi zeudenak edo orduak pasatzera etortzen zirenak. Etengabeko bilakaera bat da, guk bide bat egin dugu, sufritu dugu, disfrutatu dugu.... Batzuk datoz orduak betetzera. Besteak gogoz baina nondik heldu, zuzendaritzatik datoz aginduak. Berritzegunetik aurten proiektu hau, hurrengoan beste gauza bat. Ez dago loturarik. Ezin da aurrera egin, koordinazioa falta da,..." (3, 4 irakasleak, 44' 50").

Ondorengo ataletan irakasleek galdetegiaren emandako erantzunak bildu dira. Ikasleekin egin den bezala, galdetegia eta emaitzen aurkezpena 3 ataletan banatu da: metodologia, motibazioa eta ebaluazioa.

7.2.3.- Langile ikastolaren metodologia eta gelen antolaketaren perzepzioa

Galdetegiaren lehen atal honetan 12 galdera proposatu zaizkie parte hartu duten 4 irakasleei eta hauetatik lortutako informazioa grafiko desberdinetan adierazi da, ez baita posible izan bakar batean dena bateratzea.


Hasteko, ikasleen esertzeko moduez galdetu zaie (Grafikoa 10).



Grafikoa 10. Ikasleen esertzeko modua.

Irakasle guztiak bat datoz esatean ikasleak taldeka esertzen zirela eta batek aipatzen du "U forman" ere esertzen zirela, taldeka esertzeaz gain.

Lehenengo 6 itemak gelen antolaketari eta funtzionamenduari buruzkoak dira (Grafikoa 11).




Grafikoa 11. Gelen antolaketa eta funtzionamendua.

Lehenengo galderan gelaren antolaketa beste eskoletakoa bezalakoa dela esaten zaie. 4 irakasletik 2k diote ados daudela, batek nahiko ados dagoela baieztapen horrekin eta azken batek desberdina dela. Talde kooperatiboen inguruan bi galdera helarazi zaizkie, esertzeko moduak eraginik ote zuen eta ia ohikoak ziren. Bietan erantzun berdina jaso da, 4tik bi ados daude, bat erabat ados eta bestea nahiko ados. Ikasgaien inguruan erabat ados daude 2 irakasle Langilen asignaturak zeudela esatearekin, bat nahiko ados eta bestea ez dago ados. Testu liburuen erabileraren inguruan iritzi desberdinak daude, ados daudenetatik ez nago batere ados esaten dutenetara. Ikasleen galdetegian gertatu den bezala, hemen ere etxeko lanen inguruan galdetzean denetariko iritziak jaso ditugu, baina ezezkoaren inguruan daude. Honen ingurukoak argitu dira ikasleen metodologiaren erantzunen atalean, eztabaida taldean hitz egindakoa bertan dago eta.

Galdera irekietan jasotakoaren arabera, irakasleek uste dute taldean lan egiteko modua onuragarria zela arrazoi desberdinengatik. Aipatzen dituztenetako batzuk: bakoitzaren erritmoa errespetatzen laguntzen zuela, zereginak partekatu, elkarrekin ikastea ahalbidetzen zuela edo norberaren eta besteen zailtasunak onartzen laguntzen zuela dira.

Galdetegiarekin jarraituz, ondorengo galdera sorta lan egiteko moduari buruzkoa da. (Grafikoa 12).



Grafikoa 12. Metodologia eta ikasleen balorazioa.

Ikasleen erritmoa errespetatzen zela esaterakoan nahiko ados azaldu dira 4tik 3 eta bat erabat ados. Lan egiteko moduaren inguruan erantzun positiboak izan dira jasotakoak. Metodologiaren eraginkortasunaren inguruan galdetuta, parte-hartzaile bat erabat ados dago honen bidez gehiago ikasten dela, beste bat ados dago eta gainerakoak nahiko ados. Emaitza berdinak lortu dira ikasleak baloratuak sentitzen ote ziren galdetuta. Honela lan egiteak irakasleentzat lan karga handiagoa suposatzen duela planteatuta, 3k ados daudela diote eta batek erabat ados dagoela.


Galdera ireki batean irakasle batek 11. galderarekin lotu du emandako erantzuna. Berak aipatzen du irakaslearentzat lan gehiago suposatzen zuen arren, lanean disfrutatzea eta hezkuntza proiektuaren parte garrantzitsua zarela sentitzea ere bazekarrela.

*Konparaketa: bai ikasle zein irakasleak bat datoz taldeka esertzen zirela esatean eta honek taldeka egiten ziren lanak eta elkarlana bideratzen zituela, guzti hori onuragarria izanik. Metodologia honek beste era batera ikasteko bidea ematen du eta gehiago ikasten dela uste dute bi taldeetako kideek; era berean, ikasleak baloratuak sentitzen zirelako ustean ere ados daude.

7.2.4.- Motibazioa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan

Gelako giroa eta ikasgelako partaide guztien artean sortzen diren erlazioak garrantzitsuak dira motibazioan. Hemen ere galderak taldekatu ditugu grafiko desberdinetan, 1-6 eskala irudikatuz. 13 galderaz osatutako atala helarazi diegu irakasleei eta jarraian bildu ditugu erantzunak, 3 grafikotan multzokatuz.


Lehenengo sei itemetan gelako harremanei eta erabilitako materialari buruz galdetu zaie (Grafikoa 13).



Grafikoa 13. Harremanak eta materiala.

Lehen hiru galderak harremanei eta gelako giroari buruzkoak dira. Hiruretan emaitza berdina jaso da: irakasle batek dio oso onak zirela, bik onak eta 1ek nahiko onak. Ikasleen jarrerari dagokionean berriz, batek oso ona zela dio eta gainontzekoek ona. Erabilitako materialaren inguruan bik ontzat jotzen dute, batek nahiko ona bezala baloratzen du eta beste batek nahiko txarra dela uste du. Aldiz, laurak bat datoz esatean ikastolak erabilitako politikarekin ados daudela.


Guzti horrek nolako eragina zuen ondorengo irudikapenean jaso da (Grafikoa 14).



Grafikoa 14. Motibazioa eta inplikazioa.

Guzti horrek ikasle zein irakasleengan eragin berdina dutela uste dute, 3k ona dela iritzi diote eta batek nahiko ona. Irakasleen inplikazioa era positiboan baloratu dute parte-hartzaileek.

Irakasleen iritzia jakin nahi izan da DBH-ko zikloetako bakoitzean bai ikasleek zein irakasleek zuten motibazioaren inguruan. (Grafikoa 15).



Grafikoa 15. Motibazioaren aldaketak.

Honela, jasotako emaitzen arabera, 2. ziklora pasatzean motibazioak behera egiten duela uste dute, bai ikasleen aldetik, baita irakasleen aldetik ere. Ikasleei dagokienez, 1. zikloan 2 irakaslek ona dela uste dute eta 2k nahiko ona. 2. zikloan aldiz, batek ona, beste batek nahiko ona eta beste bik nahiko txarra. Irakasleen kasurako antzerako emaitzak jaso dira.


Galdera irekietan jasotakoaren arabera, zenbait irakasleri gogorra egin zitzaion Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lan egitea. Beste batek aipatzen du DBH-ra iritsi zirenerako nahiko material sortua zela dagoeneko, baina Ikastolaren hasieran materiala sortzeko Gordailu izeneko elkartean biltzen zirela.

***Konparaketa:** oro har atal honetan jasotako emaitzek erakusten dute bi talde parte-hartzaileek oso positiboki baloratzen dutela Ikastolan izandako motibazioa. Hau horrela izatea ahalbidetu du ikasleen arteko harremana zein ikasle-irakasle harremana edo gelako giroa ona izateak. Baina baita materialaren inguruan zegoen funtzionamenduak ere. Materiala konpartitzeak eta baliabideak ere era positiboan baloratu baitira. DBH-ko zikloen konparaketa egitean, bi taldeek adierazi dute motibazioak apur bat behera egin zuela bigarren zikloan.

7.2.5.- Langile Ikastolaren ebaluazio modeloa

Ebaluazioren inguruko galdera sorta 8 itenez osatua dago eta jasotako erantzunak bi grafikoetan bildu dira.


Azterketa eta kalifikazioen inguruan galdetu zaie lehen bi galderatan (Grafikoa 16).



Grafikoa 16. Azterketak eta notak.

Azterketak egiten ote ziren galdetuta, bik diote ados daudela, bat nahiko ados eta azkena ez dago batere ados. Ikasleen ebaluaketa nota baten bidez egiten zela diote bik, bat ez dago ados eta bestea ez dago batere ados. Erantzun hauen arteko kontraesana bat dator neurri batean galdera honek ikasleen artean sortutako erantzun sorta zabalarekin. Talde eztabaidan hitz egindakoak argitu ahal izan ditu azterketa eta kalifikazioen inguruan sorturiko zalantzak (ikasleen ebaluazio atalean dago jasoa).

Jarraian datozen sei itemak ebaluazio prozesuaren ingurukoak dira (Grafikoa 17).



Grafikoa 17. Ebaluazioaren izaera eta adostasuna.

Ikasleen ebaluazioa prozesu baten ondoren egiten zela diote denek, 2 erabat ados daude eta beste bi ados. Hau honela egitearen inguruan ere adostasuna adierazten dute: bat erabat ados dago eta gainerakoak ados. 28. galderan eskuratutako emaitza berdinak lortu dira hurrengo bi galderetarako. Irakasleen ustez ebaluazioa era honetan egitea egokia da. Esan bezala, gauza bera lortzen da ikasleengan edukiez gain, beste balore batzuk kontuan izan behar direla esatean. Era honetan gehiago

ikasten dela baieztapenarekin erabat ados dago irakasle bat, ados daude bi eta nahiko ados laugarrena. Herriko jendeak Langileren ebaluatzeko era ez duela oso ondo ikusten uste dute denek eta 6ko eskalan 3. aukera jarri dute denek. Talde eztabaidan atera da puntu hau ere eta honen harira 2 irakasleak hartu du hitza: "Ezjakintasun ikaragarria zegoen. Famak oraindik jarraitzen du, ezagun batzuen esanetan ez dute alaba institutura eramango Langilekoekin atzeratu egingo delako" (2 irakaslea, 1h24'10"). Baina irakasleek aipatzen duten beste berezitasun bat da 1 irakaslearen hitzetan, Ikastolako irakasle guztiek euren seme-alabak Langilera eramaten zituztela eta beraz, beraiantzako onena nahi zuten helburuarekin, ez zituzten ona ez zen metodologia batean heziko.

Galdera irekietan ebaluazio prozesuaren egokitasunaren zergatiaz galdetuta prozesuari ematen diote garrantzia. Bide baten jarraipena dela aipatzen da, zertan eta nola hobetzen lagunduko duen bitarteko bat. Bilakaera izan behar da kontuan, ikaslea bera, pertsonaren osotasunean baloratu nahi delako.

Atalaren bukaeran aukera izan dute zerbait gehiago gehitzeko eta ebaluatzeko modua dela eta kritikak jaso zituztela behin baino gehiagotan aipatzen da. DBH-ko irakasleen mugikortasun handia nabarmentzen da eta irakasleen zalantza, ikuspegi desberdinak, etab. taldean elkarjartzen saiatzen zirela, prozesu horretan denek ikasten zutelarik eta onuragarria zelarik.

*Konparaketa: azterketa eta kalifikazioaren inguruko zalantza argitu da talde eztabaidan. Itema era horretan planteatu izanak ez du agian erantzun egokienaren aukera ahalbidetzen.

Gainerako galderetan, erabateko adostasuna agertzen dute ikasle zein irakasleek, ebaluazioa prozesu bat dela azpimarratzean, ez direla edukiak soilik kontuan hartzen, onuragarria dela eta egokia dela adierazten dute honen aurrean. Ebaluazioaren inguruan, ikasle guztiek diote ebaluazioa ez dela azterketa batera mugatzen eta zenbaki batez definitzen, ikasle batek aipatzen du irakaslea berarekin eta gurasoekin biltzen zela eta horixe bera azpimarratu dute irakasleek ere, garrantzi berezia emanaz gainera ikaslea ere bertan egoteari, bere jarraipen pertsonalaren protagonista izan dadin.

8.- ONDORIOAK ETA EZTABAIDA

8.1.-Publifikatu arren berezko nortasuna duen Ikastola

Atal honetan esan daiteke ondorio desberdinak izan zituela publiko bilakatzearen prozesuak, baina metodologiari dagokionean urte luzez mantendu ahal izan zen Langilek zuen lan egiteko modua hasieratik zegoen irakasle taldea bertan mantendu

zelako. Hauek erretiroa hartzen joan ahala eta irakasle berriak sartu bitartean, aldaketak ematen joan ziren, eta nahiz eta haserako hartatik desberdina izan, Langilek izaera desberdina duela esatera ausartuko nintzateke eta horrela manten dezala.

8.2.-Langile Ikastolaren eredia Heziberri 2020 bihurtua

Elkarrizketatutako irakasleak urruti harrapatu ditu Heziberri-k, hainbat Lege aldaketa ikusi arren, ez baitute azken hau martxan ikusi. Ezta neronek ere, bi urtez hainbat institututan ordezkapenak egiten egon ostean, guztia idatzita egon arren, inork ez baitaki zehazki nola eraman behar den hori praktikara. Baina bai ikusten diot Langilerekin antzekotasunik, konpetentzietan oinarrituriko ebaluazioari dagokionez, eta gustatuko litzaidake hau horrela aplikatu ahal izatea, baina gaur egungo zentruetako errealitateak ez du hau aurrera eramatea ahalbidetzen garrantzi gehiegi ematen zaielako oraindik edukiei eta ez pertsona bakoitzaren ikas prozesuari, ezta pertsona bakoitzak pertsona bezala egindako ibilbideari ere.

8.3.- Talde-lana eta material amankomuna denen artean aurrera egiteko

Honek ikaskideen arteko harremanak sendotzeaz gain, elkarrekiko laguntza sustatzen du eta materiala konpartitu behar izateak besteekiko errespetua. Ekintza bakar batek beste hainbat balore dakartza berarekin eta horrek erabateko eragina du gelako giroan eta norbanakoen jokabidean.

8.4.- Lasaitasuna eta poza ikastolara joateko

Honen arrazoiak Ikastolak zuen esanahian bilatu daitezkeela uste dut, ez baitzen ikastola soila. Txikitatik zentro desberdinetatik pasa ginen: auzoetan zeuden lokalak, era guztietakoak, ... nik esaterako Paradore bat izandako eraikin batean eta 3 pisutako *villa* batean egin nituen urte pare bat, zuhaitzak eta loreak zituen zelai batez inguraturik. Laubidietan aldiz, animaliak eta baratza ere bagenituen, arratsaldetan eskulan tailerrak (gurasoek ematen zituztenak). Horrek guztiak egiten zuen berezia Langile eta hori da guk jaso genuena, berezitasun hori. Arazoak bazeuden noski, baina asanbladan konpontzen genituen, denen artean, garrantzi berezia ematen baizitzaion tutoretzari. Pertsonen arteko harremanak asko zaintzen ziren, elkarbizitzarako hezten gintuzten.

8.5.- Ez da azterketarik eta notarik behar ikas-prozesua eraginkorra izateko

Irakasleek azterketak egiten zituzten eta nota ere jartzen zuten, baina nota hau ez zen azterketaren emaitza, baizik eta ikasle horrek izandako progresio baten ondorioa. Eta hau komunikatzeko era ere ez zen ohikoa. Ikaslea presente egonik irakasleak gurasoekin hitz egiten baitzuen honek zeraman ibilbideari buruz. Lan egiteko modu honek ikasketa prozesua eraginkorra izatea dakar eta beraz, edukiak era natural batez barneratzea azterketa baterako ikasi beharrik gabe, ikasketa prozesu horren baloraziok zenbaki bat baino gehiago eskatzen baitu.

9.- ESKERTZA

Lehenik eta behin lan hau zuzendu duen Jon Altuna nire tutoreari eman nahi dizkiot eskerrak, beti laguntzeko prest azaldu delako eta beharrezko nituen urratsak ematen lagundu didalako zenbait aholku, ideia, programen erabilera, etab.-en bidez.

Era berean, ezin dut atal honetan aipatu gabe utzi lanaren motibazio nagusia izan dena: Ikastola bera. Langiletik pasa garen ikasle guztiek bezala, nik ere sentipen guztiz emozionalak baititut Ikastolaz gogoratzean eta ez nintzateke pertsona berdina izango beste ikastetxe batean ikasi izan banu, metodologia, eduki eta gainerakoez gain, batez ere pertsonak heztea baitzuen helburu Langilek eta hori lortzeko tratu humano hori nabarmena da bertatik pasatako ikasle guztiongan. Eta hau hain da horrela, ezen seguru nago galdetegia beste gai bati buruz izango balitz, erantzun duten ikasle ohien erdiek ere ez zutela erantzungo. Zer esanik ez irakasleen aldetik, hasiera hasieratik egon baitira lan hau aurrera ateratzeko beharrezko izan dudan guztian euren hondar alea jartzeko prest. Urteetan egindako lana eskertu nahi nieke eta garen bezala garelako gogoratu beraiek egun batean bide hau hartzea erabaki zutelako. Beraz, eskerrik asko.

10.- IKERKETAREN MUGAK

Gaur egun Langile Ikastolak ez dauka Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eskaintzeko aukerarik eta beraz, ikerketa lan honek duela urte batzuk izan zuen azken aplikazioa. Hori dela eta, galdetegia erantzun ahal izan duten ikasle zein irakasle kopurua mugatua izan da. Azpimarratzekoa da baita ere, irakasleen perfil zehatz bat bilatu denez, irakasle kopurua mugatua izan dela eta galdetegietan jasotako emaitzak oso orientatiboak direla.

11.- BIBLIOGRAFIA

- Aranburu, X. (1991). Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean. *Ikastaria: Cuadernos de Educación*, 4, 9-74.
- Auzmendi, J. M. (2010.eko Urriak 24). Langile ikastola? *Argia*, or. 23.
- Azkarate, M. (2012). Karmele Esnal Zulaika (1932-2012): andereño Karmele. *Euskera: Euskaltzaindiaren Lan eta Agiriak*, 57, 407-419.
- Basurto, F. (1989). La normalización de la ikastola: breve historia y estado de la cuestión de la Escuela Pública Vasca. *Historia de la Educación*, 8, 139-165.
- Corcuera, A. (2012). *Escuelas alternativas y homeschooling vs. Escuela tradicional*. (Trabajo de Fin de Grado), Universidad Internacional de La Rioja : Logroño.
- Dávila, P. (2005). La renovación pedagógica en el País Vasco (segunda mitad del siglo XX). *Sarmiento*, 9, 85-103.

- Dendaluze, I. (2002). Ciencias sociales e investigación. *XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak*, (or. 1139-1158). Donostia.
- Errico, G. (2014). La Pedagogía Freinet en España: la importancia del Movimiento Cooperativo de Escuela Popular (MCEP). *Cabás*, 12, 1-14.
- Eusko Jaurlaritzak. (2015). 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa. Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 141, 1-268.
- Fernandez Enguita, Mena, L., & Riviere, J. (2010). Fracaso y abandono escolar en España. *Profesorado, Revista de Currículum y Formación del Profesorado*, 14(3), 319-321.
- Freinet, C. (1993). *Las técnicas Freinet de la escuela moderna*. Madrid: Siglo XXI.
- Freire, P. (1975). *Pedagogía del oprimido*. Madrid: Siglo XXI.
- Garmendia, J. (2014). Langile ikastola. Hernani. *Auñamendi Entziklopedia (on line)*. Eskuratzeko-eguna: 2019.eko Otsailak 28. Iturria: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/langile-ikastola-hernani/ar-154452/>
- Iza, I. (2010). *Ikastola mugimendua debilen Herria: ikastola eredu 1960-2010*. Bilbo.
- Köhlberg, L. (1982). Estadios morales y moralización. El enfoque cognitivo-evolutivo. *Infancia y Aprendizaje*, 5(18), 33-51. doi:10.1080/02103702.1982.10821935
- Langile Ikastola. (d.g.). <https://www.langile.eus/euskara/helbidetik/eskuratua>
- Langile Ikastola. (1998). *Langile Ikastolaren DBH-ko metodologia*. Hernani: Langile Ikastola.
- Langile Ikastola. (2010). *2010 ikasturteko memoria*. Hernani: Langile Ikastola.
- Langile Ikastola. (2018). *2018-2019 ikasturteko Langile Ikastolaren Hezkuntza Proiektua*. Hernani: Langile Ikastola.
- López Serrano, M. (2019). 40 años de leyes y didácticas educativas. Intervencionismo Político en la educación española. *Anuario Jurídico y Económico Escurialense*, 52, 559-572.
- Martinez Mesa, J. (2013). *La Ley educativa Claudio Moyano. Similitudes y diferencias con la actualidad*. (Trabajo de Fin de Grado), Universidad de Valladolid: Segovia.
- Murua, H. (2009). Irakasleen egoera Gipuzkoan Francoren garaian. *Tantak*, 21(2), 69-83.
- Navarro, C. (1993). *La educación y el nacional-catolicismo* (7. bol.). Cuenca: Universidad de Castilla La Mancha.
- Pericacho, F., & Hontañón, B. (2015). Escuela y renovación pedagógica en España: una mirada histórica. *Escenarios*, 17, 85-100. doi:10.21892/20119097.149

- Ramirez, O. (2014). Jesús Bueno Asín (1944-1975). Belaunaldi oso baten isla. *Gerónimo de Uztariz*(30-31), 101-132.
- Stake, R. E. (1998). *Investigación con estudio de casos*. Madrid: Ediciones Morata.
- Yin, R. K. (1981). The case study as a serious research strategy. *Knowledge*, 3(1), 97-114. doi:10.1177/107554708100300106

12.- ERANSKINAK

1 ERANSKINA

ISABEL CELAÁ -HEZKUNTZA SAILBURUARI-

Hernaniko Langile Ikastolak, Isabel Celaá Sailburu andereari, ondoren azaltzen dituen arrazoiengatik, Hernanin bigarren hezkuntzako institutuen fusioaren agindua atzera bota dezan eskatu nahi dio lerro hauen bidez.

2005ean Hezkuntza Delegazioak herriko ikastetxe publiko guztioi 12-16 ikastetxe bateratu bat sortzeko proposamena egin zigun, eta bi urtez iraun zuen prozesu horretan, irakasle eta gurasoz osatutako lan batzordean gogor egin zen lan, ikastetxe bakoitzaren hezkuntza proiektua aztertuz, gutxienezko adostasun batzuetara iristeko helburuarekin. Hezkuntza Delegazioak hitz eman zuen prozesua hasi aurretik lan horren emaitza errespetatuko zuela.

Baina herriko ikastetxe publikoak oso hezkuntza proiektu desberdinak ditugu, era oso desberdinean ikusten dugu irakaskuntza eta bi urteko lan guzti horren ondorioa izan zen ez zegoela adostasun nahikorik aurrera egiteko.

Bi urtez fusioaren berririk eduki gabe egon ondoren, 2009an erabateko inposizioa eta erasokorra den agindua eman du Hezkuntza Delegazioak, hala nola 2010/2011 ikasturtetik aurrera 12-18 urte bitarteko fusioa gauzatuko den, nahiz eta inolako proiekturik gabeko eskola jarri nahi duten martxan, eta elkarrekin egon nahi ez dugun komunitateak elkarrekin egotera behartzen gaituzten.

Batetik, ez dute emandako hitza errespetatu, bestetik Langile Ikastola suntsitzen du inposizio horrek, 2-16 ikastetxe sendo eta indartsu bat delako, inolako ihesik gabe, lan koordinatu bat duen hezkuntza proiektua delako, pedagogikoki eta konpromiso aldetik sinesgarritasun handia duena, oso parte hartzailea, eta nabarmenki aukeratua dena Hernaniko guraso gehienek aldetik, eta azkenik, Administrazioak bere interes propioak gailendu nahi ditu gutxienezko zehaztasunik ez duen proiektu batean hezkuntza bera kinka larrian jarriaz.

Arrazoi guzti horiek direla medio, eta proiektu hori aurrera ateratzeko abiapuntu hau oso txarra dela kontsideratzen duelako, Langile Ikastolak oraindik ere ezetz esaten dio fusioari. Gure seme-alabei heziketa eredurik onena eskeini nahi diegu, eta horrelako proiektu bat martxan jartzeak, eskatzen du, gutxienez, denbora eta lan sakonago bat adostasun batzuetara iristeko eta denok ilusiotik hasteko, eta ez inposiziotik. Inposizioaren bideak ez du amaiera onik izaten eta.

Langile Ikastola

2 ERANSKINA: IKASLEEN AUTOEBALUAZIO FITXA

Ikaslea:.....

Maila:.....

Data:.....

HARREMANAK

Taldean	
Gelan	
Irakaslearekin	

LANAK

Epeak	
Antolaketa (taldean, bakarka, ohiturak)	
Parte Hartzea: Gogoa, interesa, ardura	
Ulermena (reflexioa, logika)	
Autonomia	
Zailtasunak	

TAILERRA:.....

--

3. ERANSKINA: GALDETEGIAK

1.- IKASLEEN GALDETEGIAK

a) GELEN ANTOLAKETA/METODOLOGIA

Adina:

Sexua: emakumea/gizona

Ikasketa maila: DBH/LH/Batxilergoa/Unibertsitatea/Doktoradutza/Beste bat

1. Ez nago batere ados
2. Ez nago ados.
3. Ez nago nahiko ados.
4. Nahiko ados nago.
5. Ados nago.
6. Erabat ados nago.

GELEN ANTOLAKETA/METODOLOGIA (ikasleak)		Balorazioa					
		1	2	3	4	5	6
1.- Langile Ikastolako ikasgelen antolaketa beste eskoletakoa bezalakoa zen							
2.- Nola esertzen ziren ikasleak? (bat baino gehiago aukeratu daiteke. Egin gurutze bat dagokionaren azpian)							
Ikasleak bakarka esertzen ziren	Ikasleak binaka esertzen ziren	Ikasleak taldeka esertzen ziren		Ikasleak "U" forman esertzen ziren			
3.- Horrela esertzeak elkarlana bultzatzen zuen							
4.- Talde lanak ohikoak ziren							
5.- Ez zegoen ikasgairik (asignaturak) Langilen							
6.- Testu liburuak erabiltzen ziren							
7.- Etxeko lanak bidatzen ziren							
8.- Ikasle bakoitzaren lan erritmoa errespetatzen zen							
9.- Lan egiteko modu hori (esertzeko modua, ikasgaiak, liburuak,...) onuragarria da							
Zergatik?							
10.- Metodologia honen bidez gehiago ikasten da							
11.- Ikasle guztiak baloratuak sentitzen ziren (euren ikasteko zailtasuna edozein delarik ere)							
12.- Langileren metodologia izan dudana ikaskuntza-irakaskuntza mota onena izan da							
Zerbait gehiago gehitu nahi duzu atal honetan?							

b) MOTIBAZIOA

1. Oso txarra
2. Txarra.
3. Nahiko txarra.
4. Nahiko ona.
5. Ona.
6. Oso ona.

MOTIBAZIOA (ikasleak)	Balorazioa					
	1	2	3	4	5	6
13.- Nolakoa zen ikasleen arteko harremana?						
14.- Eta irakasle-ikasle arteko harremana?						
15.- Nola baloratuko zenuke gelako giroa						
16.- Nola baloratuko zenuke ikasleek zenuten jarrera ikasgelan						
17.- Eta erabilitako materiala? (irakurketa liburuak, kontsulta liburuak, ...)						
18.- Zein iritzi duzu erabilitako ikasmaterialari buruzko politikaren inguruan? (koadernoak, arkatzak, boligrafoak,... ikastolak jartzeari buruz)						
19.- Aurreko guztiak zure motibazioan nolako eragina zuela esango zenuke?						
20.- Ikastolara joateko motibazioa nolakoa zen DBH-ko lehen zikoan (DBH 1 eta DBH 2)?						
21.- Ikastolara joateko motibazioa nolakoa zen DBH-ko bigarren zikoan (DBH 3 eta DBH 4)?						
22.- Langile ez den beste ikastetxe/ instituto/ unibertsitatean nolakoa izan zen zure motibazioa?						
	Ez nago batere ados	Ez nago ados	Ez nago nahiko Ados	Nahiko ados nago	Nahiko ados nago	Erabat ados nago
23.- Lasai joaten zinen ikastolara						
24.- Sentsazio hori aldatu egin zen beste ikastetxe/instituto/unibertsitate batera joatean						
25.- Lehen Hezkuntza Langile Ikastolan egin al zenuen?	Bai			Ez		
Zerbait gehiago gehitu nahi duzu atal honetan?						

c) EBALUAZIOA

1. Ez nago batere ados
2. Ez nago ados.
3. Ez nago nahiko ados.
4. Nahiko ados nago.
5. Ados nago.
6. Erabat ados nago.

EBALUAZIOA (ikasleak)	Balorazioa					
	1	2	3	4	5	6
26.- Langilen azterketak egiten ziren						
27.- Ikasleen ebaluaketa nota baten bidez egiten zen						
28.- Ikasleen ebaluaketa prozesu baten ondoren egiten zen (hau da, ez zen soilik ariketa/froga batean egindakoa baloratzen baizik eta eguneroko lana)						
29.- Nolako adostasuna duzu prozesu honen inguruan?						
30.- Egokia da						
Zergatik?						
31.- Ikasleengan, edukiez gain, beste era bateko baloreak kontutan hartzen ziren ebaluatzeko garaian						
32.- Era horretan gehiago ikasten da						
33.- Beste toki batzuetan bizi izan duzun ebaluatzeko moduarekin alderatuz, modu positiboan baloratuko zenuke Langilen aplikatutakoa						
Zergatik?						
Zerbait gehiago gehitu nahi duzu atal honetan?						

2.- IRAKASLEEN GALDETEGIAK

a) GELEN ANTOLAKETA/METODOLOGIA

1. Ez nago batere ados
2. Ez nago ados.
3. Ez nago nahiko ados.
4. Nahiko ados nago.
5. Ados nago.
6. Erabat ados nago.

GELEN ANTOLAKETA/METODOLOGIA (irakasleak)		Balorazioa					
		1	2	3	4	5	6
1.- Langile Ikastolako ikasgelen antolaketa beste eskoletakoa bezalakoa zen							
2.- Nola esertzen ziren ikasleak? (bat baino gehiago aukeratu daiteke)							
Ikasleak bakarka esertzen ziren	Ikasleak binaka esertzen ziren	Ikasleak taldeka esertzen ziren		Ikasleak "U" forman esertzen ziren			
3.- Horrela esertzeak elkarlana bultzatzen zuen							
4.- Talde lanak ohikoak ziren							
5.- Ikasgaiak (asignaturak) zeuden Langilen							
6.- Testu liburuak erabiltzen ziren							
7.- Etxeko lanak bidaltzen ziren							
8.- Ikasle bakoitzaren lan erritmoa errespetatzen zen							
9.- Lan egiteko modu hori (esertzeko modua, ikasgaiak, liburuak,...) onuragarria da							
Zergatik?							
10.- Metodologia honen bidez gehiago ikasten da							
11.- Ikasle guztiak baloratuak sentitzen ziren (euren ikasteko zailtasuna edozein delarik ere)							
12.- Langileren metodologiak lan gehiago eskatzen du irakasleen aldetik							
13.- Zein urtetan hasi zinen lanean Langilen (gutxi gora behera)?							
Zerbait gehiago gehitu nahi duzu atal honetan?							

b) MOTIBAZIOA

1. Oso txarra
2. Txarra.
3. Nahiko txarra.
4. Nahiko ona.
5. Ona.
6. Oso ona.

MOTIBAZIOA (irakasleak)	Balorazioa					
	1	2	3	4	5	6
14.- Nolakoa zen ikasleen arteko harremana?						
15.- Eta irakasle-ikasle arteko harremana?						
16.- Nolakoa zen irakasleen inplikazioa proiektuan zure ustez?						
17.- Nola baloratuko zenuke gelako giroa						
18.- Nola baloratuko zenuke ikasleek zuten jarrera ikasgelan						
19.- Eta erabilitako materiala? (irakurketa liburuak, kontsulta liburuak, ...)						
20.- Zein iritzi duzu erabilitako ikasmaterialari buruzko politikaren inguruan? (koadernoak, arkatzak, boligrafoak,... ikastolak jartzeari buruz)						
21.- Aurreko guztiak ikasleen motibazioan zein eragin zuela esango zenuke?						
22.- Eta irakasleen motibazioan?						
23.- Zure ustez ikasleek ikastolara joateko zuten motibazioa nolakoa zen DBH-ko lehen zikoan (DBH 1 eta DBH 2)?						
24.- Zure ustez ikasleek ikastolara joateko zuten motibazioa nolakoa zen DBH-ko bigarren zikoan (DBH 3 eta DBH 4)?						
25.- Zure ustez irakasleek ikastolara joateko zuten motibazioa nolakoa zen DBH-ko lehen zikoan (DBH 1 eta DBH 2)?						
26.- Zure ustez irakasleek ikastolara joateko zuten motibazioa nolakoa zen DBH-ko bigarren zikoan (DBH 3 eta DBH 4)?						
Zerbait gehiago gehitu nahi duzu atal honetan?						

c) EBALUAZIOA

1. Ez nago batere ados
2. Ez nago ados.
3. Ez nago nahiko ados.
4. Nahiko ados nago.
5. Ados nago.
6. Erabat ados nago.

EBALUAZIOA (irakasleak)	Balorazioa					
	1	2	3	4	5	6
27.- Langilen azterketak egiten ziren						
28.- Ikasleen ebaluaketa nota baten bidez egiten zen						
29.- Ikasleen ebaluaketa prozesu baten ondoren egiten zen (hau da, ez zen soilik ariketa/froga batean egindakoa baloratzen baizik eta eguneroko lana)						
30.- Nolako adostasuna duzu prozesu honen inguruan?						
31.- Egokia da						
Zergatik?						
32.- Ikasleengan, edukiez gain, beste era bateko baloreak kontutan hartzen ziren ebaluatzeko garaian						
33.- Era horretan gehiago ikasten da						
34.- Ikastolakoa ez den jendea ados dago Langileren ebaluatzeko moduarekin						
Zerbait gehiago gehitu nahi duzu atal honetan?						

Irakasleekin egindako eztabaida talderako galderak:

1.- PUBLIFIKAZIOA

- a) Zein izan ziren publikatzearen arrazoiak?
- b) Zein onura ekarri zituen publikazioak zure ustez ikastolara (ekarri bazituen)?
(irakasleentzat, ikasleentzat, ikastolarentzat, familientzat)
- c) Nola eragin zuen prozesuak Langileren metodologian?
- d) Nolakoa izan zen prozesua lehendik zeundeten irakasleentzat?
- e) Publikatzearen alde al zeunden?
- f) Zergatik?
- g) Nola ikusten duzu gaur egungo irakasleen inplikazioa?

2.- HEZIBERRI 2020 ERLAZIOA

- h) Ezagutzen al duzu Heziberri 2020?
Erantzuna baiezkoa bada,
- i) Zer iruditzen zaizu eta zer azpimarratuko zenuke Heziberri 2020-ri buruz?
- j) Antzekotasunik ikusten al diozu Langileren filosofiarekin?
- k) Hobekuntzarik ekarriko duela iruditzen zaizu?
- l) Zein zailtasun ikusten dizkiozu?

Galdetegietatik ateratako galdera batzuen azalpen zabalagoa:

- m) Ikasgelen antolaketa ez da beste ikastetxeetakoa bezalakoa. Nolakoa da?
- n) Ikasgaiak zeuden?
- o) Etxeko lanak bazeuden... lantratoekin lotu
- p) Azterketak zeuden?
- q) Ikasleen ebaluazioa nota baten bidez egiten zen?
- r) Langileren ebaluatzeko era nola ikusten zen herrian?

4. ERANSKINA: GALDETEGIETAKO GALDERA IREKIETAN JASOTAKO ERANTZUNAK.

IKASLEEN ERANTZUNAK:

METODOLOGIA

- Lan egiteko modu hori (esertzeko modua, ikasgaiak, liburuak,...) onuragarria da. Zergatik?

1. Pentsatzea eragiten du, lan taldean egotea, harremanetan zaudenean bata bestearekin hitz eginez, lanak, irakurketa, etab. naturalidadearekin sortzen da.
2. Normala zen talde lana egitea.
3. Talde lana sustatzen delako derrigorrean, indibidualismoak alde batera uzten ditu.
4. Talde lanean besteengandik jasotako laguntza eskergarria eta oso lagungarria da, arazo ezberdinak planteatzeko ikuspegi anitz sortzen baitira horrela. Gainera taldean egoteak haurren arteko komunikazioa indartzen du eta lana ez da astuna egiten.
5. Bizitzan ere elkarlanean egiten dira gauza gehienak.
6. Talde lana bultzatzeaz gain (gutziz oinarritzkoa) ikasleak elkarrekin erlazionatzera behartzen dituelako (batak besteari begiratu, elkarren artean hitz egin...).
7. Elkarlana sustatzen du, denbora libre gehiago ematen du....
8. Bakarrik ez sentitzeak laguntzen du.
9. Zalantzak nire lagunek azalaraztea oso onuragarria da hauek baloratzeko eta hortaz gure harremanak oso osasungarriak ziren.
10. Talde lana.
11. Talde lana sustatu eta batek ez zekiena beste baten laguntzaz egiten ikasten genuelako.
12. Ideiak elkarbanatzeko aukera handiagoa.
13. Talde lana sustatzen zen gehienbat, eta beti da aberasgarriagoa.
14. Elkarrekin lan egitea bultzatzen duelako.
15. Talde lana bultzatzeaz gain gauza gehiago ikasteko aukera ematen duelako eta arazoak taldean konpontzeko aukera zegoen.
16. Elkarrekin asko ikasten genuen.
17. Laguntza sustatu eta ikasleengandik ere ikasten zelako.
18. Taldean lan egiten ikasten delako.
19. Ikasketa kooperatiboa bultzatzeaz gain, ikasle bakoitzaren erritmoa mantentzen delako ebaluaketa jarraia egitean.
20. Elkarlana sustatzen zelako horrela, ikasketa prozesuari ematen zitzaion garrantzia eta horrela garapen indibidualei kolektiboki laguntzen zitzaien.
21. Bakoitzaren erritmo naturala errespetatzen zen eta ikasleen arteko laguntza bultzatzen zen.
22. Talde lana eta elkarlana bultzatzen duelako eta norbanakoaren erresponsabilitatea lantzen da.
23. Aukera berdinak denentzako, denak berdinak ikasgelan, konparaketarik gabe, elkarren kapazidadeen artean eta pertenezien artean.
24. Bakoitza zen bezalakoa onartzen zutelako.
25. Ikasgelako aniztasuna errespetatzen duelako. Ikasle bakoitza errespetatu eta elkartasuna sortzen delako ikasleen artean.
26. Zure erritmoa ikasten duzu era lasaiagoan eta logika erabiliz... ikasten duzun hori denborarekin gogoratzen da.
27. Nire ustez onuragarria izan zen ikasgai bakoitzean liburu bat eduki orde z fotokopiekin lan egitea, erosoagoa delako eta askatasun gehiago ematen duelako temarioari begira.
28. Oinarria heziketa metodologian dagoelako.

29. Oso prozesu naturalean ikasten genuen, ulermentik ikasten eta ez testuliburuak buruz ikasten...
30. Baloreak lantzeaz gain, errazago barneratzen genituen ikasketak.
31. Beste balore batzuk ikasten direlako.
32. Beste balore batzuk erakusten ditu. Ikastolara joatea atsegina egiten da.
33. Libururik gabe ikastea beti askeagoa da eta ikasleen parte hartze aktiboagoa bultzatzen du (gelan adi egoten, informazioa bilatzen...). Taldeka esertzeak talde lana errazten du eta honela lan eginez gehiago ikasten da, bata besteari laguntzeko aukera dagoelako.
34. Taldean esertzeak elkarlana bultzatzen zuen, libururik ez erabiltzeak interesen arabera edo beharren arabera ikastea bultzatzen zuen.
35. Kolaborazioa bultzatzen zen, liburuetatik at beste irakaskuntza garrantzitsua ere.
36. Ez delako hain automatikoa, egoera ezberdinak sortzen ditu (ez dakit ondo esplikatzeko naizen). Ez da galdera-erantzuna metodoa, eztabaida, lankidetzak, e.a sortzen dituela iruditzen zait.
37. Buruz dena ikastea baino hobea da, etorkizunean oso erabilgarri diren tresnak ikasten dituzu eta taldean lan egiten jakitea ezinbestekoa da bizitzarako.
38. Ikasgaia ikasleei eta irakasleei hobeto moldatzen zaie. Dinamikoagoa egiten du ikasketa prozesua. Aldiro ikasle desberdinekin lan egiteko aukera ematen du.
39. Klase-kide eta irakasleen laguntzaz erronka ezberdinak betetzea lortzen zelako.
40. Norberak bere modura ulertu eta ikasteko aukera ematen du. Elkarlanean motibatuta eta ikasten laguntzen du. Askoz ere aberasgarriagoa da norberarentzat, presiorik gabe ikastea bultzatzen du. Norberak bere alde dinamikoena azalduz.
41. Dinamikoak zen.
42. Gustura aritzen zinen, fitxak betetzen genituen, lan kontratuak... Elkarlana.
43. Hobetzeko gauza asko zeuden baina ez zegoen presio handirik eta gauzak gustu gehiagorekin egiten zenituen.
44. Gustura ikasten genuelako, bereziki.
45. Ikasleak hobeto sentitzen ginelako, ez genuelako liburu baten presioa, klaseak dibertigarriak zirelako, sozializazio handia zegoelako...
46. Testuliburuetan ez dauden gauzak ikastea baimentzen du: klase-kideekin lana banatzea, zure kabuz lana antolatzea, informazioa bilatzea... gainera ikasketa prozesuan aktiboki parte hartu behar genuen (datu mordoa buruz ikasi ordez) eta gu prozesu horretan garrantzitsu ginenez interesa eta motibazioa sustatzen dituela iruditzen zait.
47. Esertzeko modu ezberdinek elkarlan maila ezberdinak bultzatzen dituztelako, liburuaren dependentzia txikiak motxilaren pisua jaisten duelako eta ekonomikoagoa delako, lan erritmoek ikasle guztiak (gutxi gora behera) antzeko ikasketa mailan jartzen dituelako ikasketa maila bera jaitzi (sakrifikatu) gabe.
48. Ikaslearen arabera, ikasle batzuei ez die metodologia honek balio. Gainera oso ezberdina da LH edo DBH. Orokorrean hitz egitea zaila da.
49. Momentuan zegoena zen eta nire kasuan ez zen bat ere gaizki joan.
50. Kritikoagoa delako.

- Zerbait gehiago gehitu nahi duzu atal honetan?

1. Baloreak lantzea oso garrantzitsua da, bertan ikasi eta bizitzen dira taldean. Bizitza den bezala ikaskuntza bizi, errealitatek ez urrundu.
2. Ez dakit materia gehiago ikasten ote genuen, baina balore eta elkarbizitzarako bai ikasten genuela gehiago.
3. Nire erritmora ikasten jarraitzen dut nire kabuz.. era lasaiean eta ikasketaz disfrutatuz.
4. Niri nire ikastola asko gustatzen zitzaidan. Gustura joaten nintzen.

5. Ez dakit onena baino asko saiatzen ziren irakasleak inklusioa lantzen, norberaren erritmoa errespetatzen eta ikasleen artean ere elkar-laguntzen.
6. Nere ustez idealizatua dago ikasle bakoitzaren erritmoa errespetatzea. Azkenean denok batera kurtsoa pasa eta ebaluazio orokorrak ere baziren.
7. Eskolako jarduera ez "ohikoak"(adb.:ihauteriak...) egokiak al ziren?
8. Ez dakit hoberena izan den, nik ez dut besterik ezagutu batxilergoa eta goi mailako zikloa kenduta... Adinak ezberdinak dira ala ere....
9. Nire kasuan bai, baina beste ikasle batzuen kasuan ez da hain ona izan.
10. Irakasteko era bai, baino DBH bukatzerakoan asko "obligatu" edo egiten zuten zure iraganeko ikasketan aukeratzen.
11. Metodologia berez oso ondo dago, baina irakasle guztiek ez zuten aplikatzen DBH-n. Lehen Hezkuntzan argiago eta modu aberasgarriago batean ikasi genuela uste dut, bai irakasle inplikatu gehiago zegoelako eta baita Lehen Hezkuntzan horrelako metodologia bat garatzea errazagoa delako agian.
12. Ikasle gehiegi ginen eta metodologia ez zen guztiz bideratzea posible. Gaur egun hala gertatzen ari da!
13. Beste eskolatan ez bezala, tailer asko eta era guztietakoak genituen, baratza, animalien zaintza...
14. DBH lehen generazioa, institutuetako irakasleak metodologiari ohitzeke (liburuak).
15. Fusioarekin metodologia hori alde batera utzi zen.
16. Langile ikastola dexente aldatu da. Nik LH eta DBH-ren artean aldaketa nabari nuen, LHn errazago edo gehiago nabaritzen da metodologia hori.
17. Oso harro nagoela Langilek eman didanarekin.
18. Nire seme-alabek ere Langilen ikastea nahiko nuke.

MOTIBAZIOA

- Zerbait gehiago gehitu nahi duzu atal honetan?

1. Institutura eta unibertsitatera joatea zuk aukeratzen duzu, beraz ikasteko motibazioa duzun seinale da.
2. Langile ez den beste ikastetxe/ instituto/ unibertsitatean nolakoa izan zen zure motibazioa? Institutoa: baxua. Unibertsitatean: altua. Hau da, motibazioa ez zitzaidan irakasteko moduaren arabera aldatu, baizik eta, tematikaren/ adinaren (heldutasunaren) ondorioz.
3. Ikastolan etxean bezala sentitzen nintzen, lasai eta eroso... etxeko goxotasun horrekin bezala! Ondorengo aldaketekin arrotzagoa eta hotzagoa zen dena (harremanak, metodologia, eraikinak...).
4. Lehen Hezkuntzan oso gustura aritu nintzen. Batxilerra aldiz oso txarto.
5. Motibazioa oso zaila da baloratzen. Ni lagunak ikusteko motibatuta joaten nintzen ikastolara. Unibertsitatean, berriz, ikasteko motibazioarekin joaten nintzen (neuk aukeratutako ikasketak baitziren, eta ez derrigortuak).
6. Ikastetxe nahiko handia izan arren ikasle eta irakasle guztien artean harreman estua zegoen, gertukoa.
7. Instituto/unibertsitatera joatean, motibazio aldaketa ez dator ikasteko metodologiaren aldakuntzatik. (off topic): interesgarria(goa) litzateke irakasleek duten ikuspuntua gelako jarreran, ikasleok balorazio positibora jotzeko tendentzia dugulako.

EBALUAZIOA

- Ebaluazio prozesua egokia da. Zergatik?

1. Bakoitzaren erritmoa da garrantzizkoa.
2. bakoitzaren erritmoa errespetatzen delako.
3. Eguneroko lanak garrantzia hartzen duelako.
4. Egunerokotasunean egiten den lana baloratzen delako eta ez froga baten emaitzarekin.

5. Azterketa bakarrik nota bat delako. Eguneroko lanean ikusten delako bakoitzak ikasi duena.
6. - Azterketak: estresa sortzen dute ikasleengan, aukera bakarra, 'gaur ikasi-bihar ahaztu'.
- Eguneroko lana: ikaslea bere egunerokotasunean nola moldatzen den ikusteko aukera ematen du. Lan ingurugiro hobeago bat bultzatzen du. Materia barneratzeko metodo egokia.
7. Azterketarako ikasten dena ez da benetan ikasten. Gainera, azterketa bateko notak ez du esan nahi badakizula edo ez dakizula. Agian egun txar bat izan duzu eta ez duzu azterketa gaitzen.
8. Azterketak momentuko ezagutza ematen dizulako (egin eta ahaztu). Lanak eta prozesu apropos batek (motibazioak du zerikusi asko) luzerako ezagutza ematen du.
9. Ikaslearen barneraketarako guztiz desegokia delako.
10. Ez duzulako soilik azterketa gaitzeko ikasten.
11. Ez zelako bultzatzen zerbait memorizatzeraz, baizik eta gai bat ezagutu eta ulertzeraz, askoz garrantzitsuagoa dena!
12. Tamalez, hezkuntza sistemak ez dira aldatu eta arrazoiak erabili beharrean, azterketak gaitzeko buruz ikastera eta segituan ahaztuzera "ikasten" dugu gero sistemak jarraitzeko. Baina Langile-n ikasitako baliabideak erabilgarriak dira beti.
13. Eguneroko lana delako balio duena. Eta ez dira soilik edukia eta memoria baloratu beharreko parametroak, beste gaitasun ugari ere baloratu behar dira. Azterketak eginez soilik baloratzen denean gaitasun jakin batzuk bakarrik baloratzen dira, alderdi bakarra, ez da ebaluazio konpleto bat.
14. Pertsona baten jakin-mina prozesu osoan eraman duen eboluzioan eta ulermenean ikusten da, oso zaila da egun bateko apostu bakar batean, hau da azterketa bakar batean, bere gaitasun osoa ikustea, bai urduritasuna edo bere momentuko egoera pertsonalak kalte egin dezakelako...
15. Ikastola desberdin baten heitzeko metodologiaz galdetzen duelako.
16. Irakaskuntza prozesu guztia azterketa batera (eta ondorioz, nota batera) mugatzea ez zait ondo iruditzen, are gutxiago azterketa hori materia buruz ikastea soilik oinarritzen bada.
17. Posible delako egunero alperkerian ibiltzea, etxeko-lanak ez egitea... eta azterketarako egunean kopiatu eta aprobatazea.
18. Kurtso osoan zehar egindako lanaren eta izandako jarreraren ondoriozko nota lortzen zen. Horrek kurtsoan zehar lan egitera motibatzen zaitu, ez azken momentuan ikastera bakarrik. Gainera frogaren egunean, hau gaizki ateraz gero, horrek ez zizun nota txarra izatea eragingo urte osoan zehar eginikoa ona bazen.
19. Azterketa batek ezin du hiru hilabetetan egindako lanaren eta ikasitakoaren isla izan. Gainontzeko jarduerak ere garrantzitsuak dira.
20. Azterketa batek ez du benetan erakusten zerbait ulertu eta barneratu duzun, azterketa egin duzun momentuan errepikatzeko gai zarela soilik frogatzen dute. Garrantzia prozesuari emateak berriz, hasieran non zinen, zenbat lan egin duzun eta zenbat aurreratu duzun ikusteko balio ditu.
21. Prozesu osoari erreparatzen zitzaien, ez ariketa bati soilik.
22. Hala izan behar duelako.
23. Ez delako urte osoan egin den guztia froga bakar batez baloratzen.
24. Ebaluaketa prozesua integrala eta globala izan behar delako.
25. Momentu batean egiten duzunak ez duelako zure gaitasun edo lan erritmoa epaitzen.
26. Ez zelako froga baten nota hartzen klasean egindako lana baizik.
27. Norberak motibazio ezberdinak ditu eta kurtsoan zehar edo bizitzan zehar egoera ezberdinak pasatzen ditugu. Norberaren ebaluaketa, azterketa baten notaren arabera izateak ez du norberaren errealitatea edo jakintza adierazten.

28. Dena ez delako emaitza.
29. Froga simple batek ezin dituelako ikasle baten gaitasun guztiak neurtu. Ebaluazio mota honek ikaslearen ikaskuntza prozesua ebaluatzeko aukera ematen du.
30. Ebaluaketa jarraiak hobeto islatzen duelako egindako lana eta esfortzua.
31. Ikastolan ikasleen garapena eta gizarteratzeko prestutasuna baloratu behar dela diot eta ez egun batez gai espezifikoki bati buruz duen informazioa. Jakituria baloragarria da baina garrantzitsuena bakoitzak bere baitan pentsatzeko eta arduratsu jokatzeko ikaskuntza da hezkuntzan, nire ustez.
32. Esfortzu baten emaitzak pertsonalizatugoak zirelako.
33. Ikasketa baten ebaluazioa ezin delako mugatu froga puntual batera. Bakoitzaren ikaste gaitasunak (beste edozein gaitasun bezala) ezberdinak direnez eta prozesuak ere ondorioz indibidualak, ezin da azterketa uniforme baten bidez ebaluatu ikaslea. Jarraipenaren bidez bere garapenari eman behar zaio garrantzia.
34. Ikasketan balore gehien duen ezaugarria banakoaren prozesua delako. Saiakera ebaluatzea ezinbestekoa da nota jartzerakoan. Azterketa bat ezin da izan pertsona bat ebaluatzeko metodo bakarra, denok ez baikara berdinak eta guztiok ebaluazio justu bat merezi baitugu.
35. Ikasleen gaitasunak eta ezberdintasunak aintzat hartzen zirelako.
36. Ez delako azterketa batean baloratzen soilik norberaren gaitasuna.
37. Bakoitzak bere burua ebaluatu behar du eta lan asko edo gutxi egiteak duen eragina ikustea funtsezkoa iruditzen zait.
38. Lanbide Heziketara arte ez nintzen ebaluatua sentitu, alegia, pertsona bezala baloratua bai baina nota batekin ez.
39. Ikasleen gaitasun eta esfortzuak (ikaste gaitasunak, lan esfortzua, jarrera...) baloratzeak onurak dakartzalako. Lantratoei dagokienez: unibertsitateko Bolonia modeloaren ideia inplementatzen zen. Eguneroko lana ikasleak berak antolatu zezakeen eta lantratoa baloratu, notaren portzentaia bat lortzen zen.
40. Norberaren gaitasun eta esfortzutik baloratzen delako.
41. Ikasle batzuentzat bai, haien ikasketa moduagatik. Beste ikasle batzuentzako ez da egokia eta gaizki pasarazi diote. Ikasle askori ikasteko balio ez zutela esan izan diete. Eta orain unibertsitatean lizentziatuak dira.
42. Ikasleari moldatzen da.
43. Ikasle irakasle erlazioa ez zen bestelakoa azken finean irakasleek ikasleei eginbeharrak eskatzen zizkieten eta ikasleek bete behar zituzten. Nahiz eta etxeko lan gustokoak ziren niretzako ez zen horrela ikasle guztientzako.
44. Egokia da, baldin eta prozesu osoan zehar ebaluazioa ondo egiten den, eta irakasle inplikatuak badaude.
45. Uste dut akademikoki ez ezik, emozionalki ere hezi gintuztela.

- Beste toki batzuetan bizi izan duzun ebaluatzeko moduarekin alderatuz, modu positiboan baloratuko zenuke Langilen aplikatutakoa. Zergatik?

1. Emaitza bakarrik ez zelako baloratzen.
2. Nire ustez ez da beharrezkoa txikitatik azterketak egitea eta nota bidez ebaluatzea.
3. Zenbaki bati baino gauza gehiagori ematen zitzaiolako garrantzia.
4. Esfortzua eta jarrera ere baloratzen delako eta ez bakarrik azken emaitza.
5. Pertsona ez baitzen zenbaki soil bat.
6. Beste kontu batzuei, emozioei, leku ematen zitzaielako; beste gaiak bezain garrantzitsua izanik alderdi honen lanketa!
7. Ezin delako urte osoko edo hilabeteetako lana egun bakar batean jokatu. Eta gainera aspektu asko baloratu gabe geratzen direlako.
8. Prozesuak balio duelako.

9. Nere ustez ikastea prozesu konplexua da (interesa, motibazioa, harreman pertsonalak, arazoak konpontzeko irtenbideak...) eta garrantzitsua iruditzen zait gauza guzti horiek ere baloratzea.
10. Irakasleek orokorrean bere lana egiteko pozik zeuden. Baina ez zen modu berean beti gertatzen. Irakasle batzuekin oroitzapen desberdinak ditut.
11. Eguneroko lanak eta esfortzuen emaitzak ikusten zirelako.
12. Esan bezala azterketek pisu gutxiago zuten eta beraz hiruhilekoan zehar egindako lanak ere motibatzen zuen.
13. Ez zelako soilik nota bat baliatzen.
14. Beste lekuetan azterketen nota bakarrik hartzen da kontuan eta ez klasean egindako lana.
15. Alde negatiboak: Langiletik kanpo, ikasleak errealitate berri baten aurrean 'galduta' sentitzeko aukera sor dezake.
16. Askotan ikasleari doitu zaiolako.
17. Ikaslera moldatzen delako.
18. Presio gabe ikasten da.
19. Institutuan eta unibertsitatean azterketek zuten pisu handiena eta honek izugarriko presioa sortzen duela uste dut. Hiru hilabetetan egin duzun lana ordubete edo bi orduko lan batek markatzen duelako.
20. Bestetan zuk dituzun baloreak ez direlako bereziki kontutan hartzen.
21. Kolektibotasuna lantzen delako eta giza baloreei, kurrikulumari bezain besteko garrantzia ematen zaiolako.
22. Aurreko galderan esan bezala, arrazonamendua zen garrantzitsua eta ez buruz ikasi eta segituan ahaztea ulertu ez den hori (maiz gertatzen den bezala).
23. Azkenean lan bat edo aurkezpen bat egin eta notan pentsatzen geratzen gara "zer jarriko ziguten?" eta horri bakarrik begiratzen diogu.
24. Metodologia honekin ikasketa prozesua askoz ere eraginkorragoa dela uste dudalako. Klasean gustura egoteak motibazioan laguntzen baitu, honek ikasketetan laguntzen duelarik eta azken honek garapen pertsonalean.
25. Ikasleen gaitasun eta esfortzuak (ikaste gaitasunak, lan esfortzua, jarrera...) baloratzeak onurak dakartzalako. Pertsona osoagoa bihurtzeko modu eraginkorra izan daitekeelako. Ikaslearen balioa azterketa baten nota baina haratago doalako. Ikaslea motibatzeko modua izan daitekeelako.
26. Langilen ez ninduten nota betekin ebaluatzen, nirekin eta gurasoekin bilera egiten zuen tutoreak nire ikasketa prozesuan arreta ipiniz, nire lan egiteko moduan bakarka nahiz taldeka, nire harremantzeko moduan...
27. Aurretik esan bezala, pertsona baloratzen delako eta ez barneratua duen informazio kantitatea.
28. Haurraren garapenari begiratzen zaiolako.
29. Lehen esan bezala ikaslea bere osotasunean baloratua izan behar delako.
30. Masterra Dinamarkan egin nuen, eta han PBL (*Problem Based Learning*) metodologia aplikatzen zuten, bertan ere, azterketa baino, prozesu osoa ebaluatuz. Hori oso aberasgarria izan zen. Bestela, batxiler eta unibertsitatean ebaluatzeko era tradizionala izan zen, ez hain positiboa niretzat.
31. Beste leku batzuetan gauzak modu batean bakarrik ulertu behar izan ditut. Ikasteko modua askoz ere markatuagoa izan da eta horrek ez du uzten norberaren alde kritikoa bultzatzen. Batzuek testuak hitzez hitz ikasteak eskatzen du horrek eta horrela ulermen eza. Motibazio gabekoa. Langile ikastolan norberak bere modura edo erritmora ikasteko aukera ematen du. Bakoitzak bere alde kritikoa bultzatuz, imajinazioa, motibazioa eta elkarlana eta elkar banaketa bultzatuz.

- Zerbait gehiago gehitu nahi duzu atal honetan?

1. Irakaskuntza mota hori positiboa da baina ikasle gutxi direnean aurrera eramane daiteke. Lehen Hezkuntzan, adibidez. Baina bigarren Hezkuntzan gauzak aldatzen dira, ikasgeletan ikasle kopurua aldatzen zen eta honek

irakasleen lana zailtzen zuen, ikasle batzuekin bere metodoa ezinezkoa bilakatu. Esan dudana bezala nire ustez idealizatua dago irakaskuntza metodoa. Nere Langileko urteak pozik pasa nituen, zorionez ongi bukatu nuen ikasketa garaia baina batzuetan zaila izan zen ikasleen arteko harremana.

2. Hain oroitzapen politak ditugu gure artekoak, oraindik ere txikitako gelakoak elkartzen garela mahai baten bueltan urtero elkarrekin tarte goxo bat pasatzeko.
3. Etxean bezala sentitzen zinen Langilen, lehen zikloan kuxinak eta etxeko zapatilak eramaten genituen iritsi bezain laster jartzeko!!!
4. Nere esperientzia Langile Ikastolan 10ekoa izan da.
5. Nik metodologia ongi baloratu dut niri ongi egin didalako, ongi funtzionatu dudalako eta dena positibo gogoratzen dudalako (erraz eta zailtasunik gabe). Baina irakasleak ere eragina dauka. Nahiz eta Langile izan, irakasle batzuk ez zuten metodologia errespetatu eta beraz badauzkat lagunak ez dutenak oso oroitzapen ona.
6. Berrito ere, Lehen Hezkuntza mailan bai eduki genuela Langileko metodologia presente. DBH-n ordea, lehen zikloan gehiago, baina bigarrean, oso irakasle gutxi jarraitzen zuten metodologia hori.
7. Nire alabak Langilera doaz, horrek asko esan nahi du ezta? Jeje.
8. Lantratoen kontzeptua jarraitzea eta modu egokian, adinen edo kurtsoen arabera, eraldatzea, ideia ona litzateke, unibertsitatean antzeko dinamika topatuko baitituzte unibertsitateera joango diren ikasleek.

IRAKASLEEN ERANTZUNAK:

METODOLOGIA

- Lan egiteko modu hori (esertzeko modua, ikasgaiak, liburuak,...) onuragarria da. Zergatik?

1. Nire ustez bai, borobilean esertzeak, elkarri begira edo taldeka jardutean, zeregina partekatu, komentatu, elkarrekin ikastea ahalbideratzen duelako.
2. Elkarren artean egitea, hitz egitea, esplikatzea, esperimintatzea... hobeto ulertzeko, sakontzeko, adierazteko... aukera sortzea delako.
3. Batak besteari lagunduz, material amankomuna erabiliz, norberaren eta besteen zailtasunak onartuz...
4. Bakoitzaren erritmoa errespetatzen laguntzen duelako.

- Zein urtetan hasi zinen lanean Langilen (gutxi gora behera)?

1. 1977an
2. 1978an
3. 1975-76. Ikasturtean
4. 1985.

- Zerbaite gehiago gehitu nahi duzu atal honetan?

1. Zaila egiten zait zenbaki batean dena zehaztea.
2. Metodologian sakonduz, adostasunez aldatuz joan ginen. Zenbait teoriko aztertu genituen: Decroly, Montessori, Freinet, Piaget. Katalanekin harreman estua izan genuen. Hasieran Elbira Zipitriaren lanak ere kontutan izan genituen.
3. Irakasleari lan gehiago suposatzen diola jarri dut... baina baita ere disfrutatzea lanean eta hezkuntza proiektuaren parte garrantzitsua zela sentitzea ere.

MOTIBAZIOA

- Zerbait gehiago gehitu nahi duzu atal honetan?

1. Bigarren Hezkuntzako zenbait irakaslerentzat gogorra egiten zen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lan egitea.
2. DBH-n hasi ginenerako bagenuen nahiko material, testu, irakurgai, hiztegiak, atlasak eta interneten laguntza. Ikastolaren hasieran ordea, ez geneukan nahiko material. Materiala sortzeko, Gordailu izeneko elkartearen biltzen ginen.

EBALUAZIOA

- Ebaluatzeko modua egokia da. Zergatik?

1. Nire uste apalean, ebaluazioa, prozesu bat, egiten ari zaran bide baten jarraipena edo azterketa da. Zertan eta nola hobetu behar duzun lagunduko dizun bitarteko bat.
2. Jarrerazko edukiak eta prozedurazkoak ere baloratzen saiatzen ginelako nahiz eta askotan kontzeptualak gailendu azken erabakiak hartzerakoan...
3. Haurren eta gaztetxoaren bakarkako bilakaera izan behar da kontutuan, aurrez izendatutako helburuei erantzuten ikasten dute.
4. Ikaslea, pertsonaren osotasunean baloratu nahi zelako.

- Zerbait gehiago gehitu nahi duzu atal honetan?

1. Ebaluatzeko modu hau dela eta, behin baino gehiagotan kritikak jaso genituen. DBH-n, irakasleen mugikortasuna handia zenez, beti izaten genituen gure arteko diskusioak, baina bakoitzaren zalantza, ikuspegi desberdin, taldean edo ekipoa elkarjartzen saiatzen ginen. Batek, zein besteak arrazoi, guztiok ikasten genuen, denontzat zen onuragarri
2. Ebaluazio era adostea oinarritzkoa ikusten dut proiektu bat aurrera eramateko.
3. Lan tratu bidez lantzen genituen gaiak, lan tratu bakoitzak bazituen gero baloratuko ziren atalak. Hau egiteko modu desberdinak lantzen genituen: liburuxkak osatu, besteen aurrean azalpenak egin, gurasoen aurrean azaldu...
4. Gehiago ikasi horretan esango nuke eremu zabalagoa baloratzen dela eta ez bakarrik edukiak...